

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Azaroak 16, 84. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

ANGELES AROZENA,
Semea askatzeko
negoiazioaren bila

Soldaduzkari ezezka

**Zaldibarko
Futbito
Txapelketa**

PRESTA ZAITEZ NEGURAKO

LORAMENDI



KIROLAK



Indarberritu den lehoi arrasatearra



■ Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahilitezke.

•1929.ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze sasoa heldu zaio.

•1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**-rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 m² koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu dituztelarik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihardu, produktu berrietan sartzen, aukietan batez ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzializazio sarea finkatzen. Sasoi batean teknologia inportatu bazuen ere orain produktuak esportatzen ditu.

RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai.

RONEO UCEM

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetak:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanca Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Urizarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitaikoan, ASA taldea.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Gutun adiskidekoia Ramon Jauregiri

Kaixo Ramon: hauteskundeak atzean utzi ditugu, emaitzak- benetan diotsut- nik uste baino hobek izan dituzue eta azaroaren 2gneto Arima Egun honetan - hilezkilen oihartzunetatik urrun eta aske- lerro apal hauek zuzendu nahi dizkizut, adixkidetasunean, aspaldi elkar ikusi gabe gauden arren. Zu lehendakaritzara iritsi asmoz, alde batetik, eta ni ia sarraile gehiago eta prezio hobean sal ote ditzakedan ahaleginetan, bestetik, gure bideak ez omen dira hurbilkor. Baina, tira!, gutun hau jasotzen duzunean beti bezain osasuntsu eta umoretsu jarraituko duzulakoan nago.

Zure denbora preziatuaren minutu pare bat kendu nahi nizuke -aurretik nire eskerrona- hemen, gure Arrasate zail eta kolore askotako honetan gertatzen ari zaigun fenomeno bitxi baten gaineko nire eritzia ezagutu dezazun. Eta zure betiko gogo zabaltasunez entzungo (irakurriko) didazulakoan, ez diot sarrera honi bihurgune gehiagorik eman nahi. Noan, beraz, harira.

Honez gero -hemengo zure alderdikideek ezagutarazita, nonbait- Arrasaten euskaraz argitaratzen dugun astekari bat badaukagula jakingo duzu; eta - hori gutxi bailitzan- astean sei egunetan gure hizkuntzaz emititzen duen telebista emisora txiki bat martxan ipini dugula ere bai. Zeinek esango zigun, ezta?, orain dela hamabost bat urte, XXgn mendea amaitu aurretik Arrasateko herriak komunikabideetako aukerari izugarriko desafio egingo ziona, nola... eta euskaraz! Gezurra dirudien arren, gauzak ongi xamar irtetzen ari zaizkigu, kasu hauetan izaten diren eragozpenak poliki poliki gaitzen goazela aitor dezakedalarik. Ez nagokie bakarrik zailtasun teknikoei. Horietarako espezialista trebeak baditugu. Badira beste

konplikazio batzuk, haiek baino korapilatsuagoak direnak, hain zuzen ere gizonak sortuta direlako. Horretaz zeuk ere, Ramon, esperientziaren bat jasan behar izan duzu zure bizitzan, ezta?

Arrasate Press eta Arrasate Telebista izenekoak, komunikabide pribatu bezala ari dira. Aske eta zabal, beraz, jokatu nahi dute tendentzia sozial, kultural, erlijioso, ekonomiko eta politiko guztiakin. Baina, Ramon, zuekin ezin dezakegu karrerarik egin! Orain arte eman zaizkizuen aukerei ezetik borobilenaz erantzun diezue. Eta parka nazazu baina, jarrera horrek ez dizue onik egiten. Zergatik ez dituzue aprobetxatzen bitarteko horiek? Euskaraz idatz eta hitz egin dezakeenik ez daukazuela? Baina, motel, hori ez da inolako arazo metafisiko. Asko eta asko dira, azkeneko hamabost urteotan, gure (eta «gure» horretan zeu ere sartzen zaitut) hizkuntzan trebatu direnak. Zuen planteamendu itxia ikusirik, diskriminazioan trintxeratzan ari zaretela pentsatu beharko genuke.

Egiezu, arren, dei bat hemengo zure alderdikideei, elebitasunarena gogorazteko. Bienbitartean, udal bileretako ixkanbilak eta prentsaurrekoetako demagogia, oraingoz, hauteskunde aurreko keinutzat hartuko ditugu (1). Baina, aldiz, euren (zuen) jarrera antzu horretan jarraituko balute, zure alderdikideek ez dutela Euskadiren proiektuan sinesten irudituko litzaiguke.

Badakizu non aurki nazakezun. Beti arte.

(1) *Post scriptum*: karta hau, Arartekoak bere eritzia azaldu aurretik idatzi dizut.

Josemari Velez de Mendizabal

UGARAN jatetxea

Garagartza etxea - 1/797854 Arrasate

enpresa
bazkariak
eta famili bilerak



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

MARTINEZ

aroztegia

Sukaldetan neurri guztietako altzariak

Araba Etorbidea 13, Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

olioak, **Artea**, lientzoak,

akwarelak eta eskulanak

Ferrerias 25

Hurtxoia

FELIPE MADINA ZURAK

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

Norbaiteri

Eskerrik asko zuri, barne-muine-tako hezur isolatu eta bakarti hauetan sortu duzunagatik. Eskerrik asko berriro, udazken horail eguzkitsuan, euriak ere negar egiten duela erakutsi diguzulako. Eskerrak eman literatur eremuan bide berri hau goldatu duzulako. Eskerrik beroena, sentimenduen gorazarre erauntsia behatze-ra gonbidatu gaituzulako. Zutabezko erlauntza honetan hazi berria erein duzulako, zaren moduan, apala, hurrengo arte diotsut.

Zure lagun batek.

Euskara eta PSOE

Hasteko, eta oso labur izateko, esango dut Euskalerritik kanpo jaio nintzela, eta orain dela hogeitatu urte, herri honetara etorri nintzela eta, noski, herri honek duen hizkuntza, hau da, Euskara ezagutu gabe eta hemen bizi zen errealitatea ez nuen ezagutzen, normala denez.

Niri inork ez dit inposatu euskara ezagutzea, eta zer esanik ez, hitz egitea ere ez, baina une batean konturatu nintzen, hemen, Euskalerrian bazeudela kultura et hizkuntza bat ezagutzeko eta ikasteko.

Hau ikusirik, eta herriaren edo herritarren bizitza eta hainbat gauza ezagutzeko, erabaki nuen Europako hizkuntza zahar hau ikastea eta erabiltzea, noski!!

Edozein herrira joaten bazara, integratu ahal izateko, bere errealitatea ezagutu behar da, eta kultura ezberdina baldin badu hor dago - hizkuntzaren bidez- posibilitatea ondo ulertzeko herri honen bizimodua, kultura, izaera, etab.

Hori da nik egin nuena momentu konkretu batean.

Esan beharra dago ni ez naizela sentitzen, zalantza barik, diskriminatura Arrasateko (ala Mondragon-eko?) PSOEk dioen bezala, baina zoritxarrez, gure hizkuntzak beti izan ditu beraren kontra ari diren eta arituko diren etsaiak; gure hizkuntzak horre-

lako jarrerekin, beste eraso bat jasoten du; gure hizkuntza-nahiz eta batzuek halako egoera segi dezala nahi duten, beraiek egindako lege guztien ganetik pasatuz.

Ni pozik egongo nintzateke, eta ni bezalako jende asko, *euskara* herri osoak hitz egingo balu, horrek adieraziko lukeelako euskararen erabilpena Euskalerrian dauden indar politiko guztiak hizkuntzaren normalizapenaren alde egongo zirela.

Baina ez dudanez uste hala denik, gaur egun diskriminatuak sentitzen garen bakarrak geu gara, nahiz eta gure Aberrian bizi.

(Adibidez, PSOEek ez du inoiz Euskara erabiltzen ezertarako eta elebitasuna, hau da, beraiek inposatutako legalitatea, betetzen dugun bakarrak Euskaldunok gara).

T. E

Atxabaltan ez gaz ba!!

Kanpaina dela eta Beinkek honako hau kaleratu du:

Atxabaltan erderaz?

Gaur, euskaraz egin nahi duenarentzat hainbeste laguntza dagoen honetan, erderaz? Haur guztiak euskaraz ikasten ari diren honetan, erderaz? Beren burua euskaldun sentitzen dutenak ere, erderaz gaur Aretxabaltan?

Bere baitan euskaltasunik sentitzen ez duenak, berak ikusiko du zer egiten duen. Ez du inork esaten, guk ez behintzat, herri hau euskaldunona bakarrik denik, euskaraz ez dakitenek hemen lekuri ez dutenik. Ez. Eta ez dugu inongo meziprezurik aukera hori libreki aukeratzeko duenarentzat. Bakoitzak aukeratzeko bere nortasuna eta bere hizkuntza.

Baina zuk, atxabaltar "euskaldun" horrek, jakin ezazu, gaur eta hemen, euskaraz mintzatzeko ahaleginik egiten ez duenak, ez duela euskaldun izenik merezi.


Beinke

Zer iruditzen zaizu kondoiaren erabilpena promozionatzea?



Mainer Aranburu
(ikaslea)

Ondo iruditzen zait gazterientzat.



Juan Mari Urrutia
(langilea)

Beharrezkoak ikusten ditut gaisotasunak galerazteko, eta gainera semerik eduki ez nahi dutenentzat ondo daude.



Jose Miguel Bastardo
(ikaslea)

Gaisotasun benereoen prebentziorako ondo daude, ondo iruditzen zait promozionatzea.




Arantxa Usabiaga
(etxeandrea)

Uste dut jendea preparatuta dagoela. Esaten dute gazteria ez dagoela preparatuta, baina nik uste dut badagoela.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDA-BAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA

Zubizameta

GALERIA 44

Arrasate

KOPIOTXOA

Fotokopiak

Planu-Erreproduzioak

Enkuadernazioak

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE

Memesa

79 42 22



ETXE-AUNDI

Dastapen-menua
azaroaren 23rako

- * Itsaskien entsalada belar finekin
- * Ahate ragout-a letxua hostotan.
- * Legatza piperrada gainean.
- * Etxe Aundi gozoteria.

3.500 pta. BEZ barne

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
ORATI

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	79 97 22
.....	79 97 33
.....	79 97 44
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZTA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
--	----------



16 OSTIRALA

• • •

- Zinea: Alai. "La locura de papá", 7 eta 9.30etan. Novedades. "Testigo accidental", 10.30etan.
- San Viatorren moda desfilea arratsaldeko 7.30etatik aurrera.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

17 LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "48 horas más", 5, 7.30 eta 10.30etan. Novedades. "House Party", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Arratsaldeko 4.30etan "Rio Bravo" bideo emanaldia Monterronen.
- Txotxongilo saioa Amaian, "Trikitrak", 6etan.
- Rock kontzertua, gaueko 11etan, herriko plazan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua, Santa Marina.

Kirol Agenda

SASKIBALOIA

• • •

- Centraljet Euskal Air- Muebles Martin, larunbatean arratsaldeko 7.15etan Musakolako kiroldegian.

PILOTA

• • •

- Taldeen ligan, Arrasate eta Beasain arteko partiduak, larunbatean goizeko 10.30etan, Musakolako frontoian.

18 IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai. "48 horas más", 5, 7.30 eta 10.30etan. Novedades. "Testigo accidental", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz, Maala.

19 ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai. "48 horas más", 7 eta 9.30etan. Novedades. "Testigo accidental", 7.30etan.
- Hitzaldia Monterronen, "Saharaiar emakumea nazio askatasun prozesuan", arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales, San Andres.

20 ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "48 horas más", 7 eta 9.30etan.

- Hitzaldia Monterronen, "Irakaskuntza etorkizunear" izenburupean, arratsaldeko 7etan eta UEUK antolaturik.
- Arratsaldeko 7etan, Amnistiaren aldeko Batzordeak antolaturik, enkartelamendua Portaloian.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

21 ASTEAZKENA

• • •

- Goardiako farmazia: Españañol, Iturriotz.

22 OSTEAGUNA

• • •

- Zine-Kluba, "Un mundo aparte", Amaian, arratsaldeko 8.30etan.
- Hitzaldia AED elkartean, "Droga prebentzioa" izenburupean, arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera, Musakola.

FUTBITOIA

• • •

- Zaldibarko futbito txapelketaren barne, 30 partidu igandetik ostiralera bitartean.

FUTBOLA

• • •

- Igandean goizeko 11.30etan emakumezkoen futbola Aretxabaletako Ibarra ondo-ko futbol zelaian, Aretxabaleta-Arrasate.
- Igandean arratsaldeko 3.45etan, Atxabalpeko futbol zelaian Mondra eta Sudupe taldeen arteko partidua.

Erakusketa

• Monterron jauregian, lu-maz idatzitako lanen erakuske-ta dago ikusgai, astearen amaiera bitartean. Idaztearen artea deituriko erakusketa horretan estilo ezberdinetako lanak aurkezten dira, pazientiaren puruz egin eta sarituak gertatu direnak, batzuk behintzat.



TXOTXONGILOA

Trikitrak

Hirugarren aldia da Cobaya talde bizkaitarrak txotxongi-loaren munduan sarrera egiten duela. *"Perfekzio handiko lan teknikoa"*, *"panpinen magia"*, *"apoteosia"*, *"musikaren zaindua eta ikusten dauden urteen isiltasun eta mirespena"* dira, besteak beste, prentsako kritikak taide honen lanari buruz aipatzen dituenak.

Ume eta gaztetxoentzako ikuskizun honetan, *Sognoiak* eta *Pigmoiak* dira protagonista. Bigarrenak dira landareak pizteaz arduratzen direnak, ipobak direlako. Hondamendi Handia gertatu zenetik, argia dosifikatu beharra dago. Batzuk zein besteek, asko maite dute Argiaren Erregina, argi zuri, bero eta gozoa ekarri zuena. Argiaren neskalila, berriz, mila koloretako uren aintziran dago, bere indar guztia baso berdean bizi emateko ahaleginetan ...

Larunbat arratsaldeko 6etan Amaia antzokian.

izan da oso, antolatzaileen us-tez. Honako hau da Jaioneren lana:



Ikastaroak

• Gorputz adierazpena HIESaren aurkako batzorde hiritarrek antolatutako, gorpuzaren eta buruaren adierazpe-

na lantzeko, arlo ezberdinak jor-ratuko dira Gasteizen, *HIESa-ekin elkarbitzen ikas deza-gun* kanpainaren barruan.

Ikastaroa Gasteizko Judiz-mendi gizarte etxean izango da astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 7.30etatik 9etara, eta gure bailarako jende guztiarentzat irekita dago.

Ekologia

• Autobiaren aurkako koor-dinakundeak, *Lurraldea proiektua* aurkeztu zuenetik aurrera daraman kontzientziazio eta in-formazio ekintzekin segituz,

Arrasaten ere Lurraldea asan-blada sortu da, eta *Lurraldea eguna* antolatu azaroaren 18rako, behin eta berriz azal-duaz hitz egiteko euren jarrera irekia eta gatazkarentzat irteera izango diren proiektuak erka-tzeko jarrera.



Astebururako, honako ekin-tzok antolatu dira: eguerdian futbito partidua Zaldibarren, *Autobia pa tu tia* eta *Ezkinako hontzak* aldean artean. Or-dubatean, Lurraldea erakuske-ta alternatiboaren inaugurazioa Sebero Altuben. 13.30etan plazan bideo pantaila erraldoia, panel informatzailea eta mural erraldoi bat margotzea eta mu-sika.

Goikobalu

Goikobalu abesbatza arra-satearrak kontzertua eskainiko du asteburu honetan Nafarroako Lizarran, larunbat arratsaldeko 7etan.

Abesbatzak 90 pataide in-guru ditu eta laster beteko da urtea sortu zenetik.



Lehiaketa

• Fagorrek antolatutako Gabonetako txartelen 1. le-hiaketa honakook izan dira sarituak, hiru mailatan: **Josu Balanzategi**, 6 urtekoa, **Kizkitza Lasa**, 12koa eta **Jaione Azkarate** 15 urtekoa. Lehenda-bizikoa izateko arrakastatsua

“.....

Lehendakaritza iritsi aurretiko bere jardun politikoa Gipuzkoan egin zuen. 1979ko apirilko lehen hauteskunde demokratikoetan alkate izateko hautatu zuten Arrasateko herri gatazkatsuan.

Herri hori- etarren eta kooperatiba mugimenduaren seaska- eta garai hartan, esperientzia gogor bezain positiboa izan zen politiko berriarentzat. Bestela ez luke aukera sortutako bakoitzean honako hau esango: ‘Han pasa behar izan nuenaren ondoren, edozeir gauza erraza iruditzen zait’.”

(Carmen Gurrutxaga kazetariak El Mundo egunkarian)

“.....

Baina euskerarekin, Arrasaterekin eta arartekoaren erabaki salomonikoarekin lotutako gai bat komentatzera ausartuko naiz, (...) ararteko izendatu zutenean zenbaitek gertatzea espero zuena gertatu bait da: praktikan konprobatu geratu da Juan San Martinen gaitasun intelektualik nabarmenena mendigoizale ona izatea dela.

(...) gazteleradunentzat erregistroa irekitzea oso da arriskutsua. Gazteleraz nork dakien jakitetik hasi behar da horrela, agiriak bidaltzea errazteko, delako koofizialtasuna errespetatu barik, eta azkenean, erropan ikur bat jostea exigitzen zaie hiritar horiei, ezagutzeko-Alemania naziko judutarren Daviden izarra bezala- hitzez ere euren hizkuntzan hartuak izatea errazteko.

Baina aratekoak ez du arazo hauetatik bat ere ikusten. (...) Juan San Martin, on hutsa zalantzarik gabe, txiki geratzen hasia da kargurako. Nire eritzia da”.

(Luciano Rincón kazetariak El Correo egunkarian)



Zer aldaketa dakartza hezkuntzaren erreformak?

Hezkuntz egiturari dagokionez, aldaketarik nabarmenena derrigorrezko irakaskuntza 16 urterarte luzatzen dela da. Derrigorrezko irakaskuntzaren egituraketa honela geratuko da, beraz:a) Haur heziketa: 6tik 12 urterarte bitartean. b) Lehen Mailako heziketa: 6tik 12 urterarte bitartean. c) Derrigorrezko Bigarren Mailako heziketa 12tik 16ra. Horren ostean, Batxilergoak eta Moduluak eratutako Lanbide Heziketa dira ikaslearen aukerak.

Metodologia kontuak baino, Heziketaren helburuak dira Erreformak kinkan jartzen dituenak, irakas-ikasketa prozesuari buruzko azken ikerketak aplikatuz. Hezkuntza osoa, integrala, gura du lortu: irakaskuntza tradizionalak ikaslearen ahalmen kognositiboetan jartzen bazuen arreta, Erreformak zabaldu egiten du landuko denaren esparrua: datuak eta kontzeptuez gainera, prozedimenduak eta ikasleen jarrera eta baloreak lantzen eta ebaluatzen saiatuko da.

Irakaslearen papera, beraz, ez da instruktore edota datu-emaile soilearena, hezitzaile edo edukadore oso batena baino. Irakasleak berak duen zientzi-edukiak ikasleengan isuri baino, irakasleak bitartekoarena egin behar du zientzia eta ikaslearen artean beronen jarrera positiboa sortuz, ikasi beharrekoa banakako ikaslearen mailara egokituz, ikasketak benetan errotuak izan daitezen (es-nahikorrak).

Gerardo Markuleta,
San Viator Ikastolako zuzendari pedagogikoa



Mendi, eskalada eta kirol gaiak

ABENTURARAKO KATU OINAK

katu oinak

Loramendi 8, Tfnoa: 77 02 69 ARETXABALETA

Aretxabaleta

Beinke taldeak Atxabaltan ez gaz ba!! kanpaina kaleratu du.

Beinkek aukeratutako bost esaldi herriko hormetan ezarri dira, jendearen arreta deitzeko. Euskaraz jakin arren erabiltzen ez duenari buruzko esaldion ondoren, euskararekin identifikatuta dauden berrogei atxabaltarren esaldiak jarriko dira, jende gehiago kanpaikarekin identifikatuta senti dadin.

Kanpainaren azken eguna azaroaren 17a izango da, hormirudiak, kartelak eta abar egingo dira kalean. Arratsaldean, umeentzako jolasak, Xabier Muguruza-ren aktuazioa izango da, arratsaldeko betan. Gauean kantu afaria izango da.



Oñati

Bizitzako egoera bat gehiago normaltzeko asmoz, Oñatin saldu eta erosi euskaraz kanpainari ekin dio Oñatiko udalak, Hizkuntza Politikarako Idazkaritzarekin batean. Dendariak eta bezeroak motibatuzko asmoz, bitarteko ezberdinak erabiltzeko dira: liburuxkak, kartelak, poltsak, eta erosketa zerrendak, erostera joandakoan gauza bakoitza euskaraz nola eskatu adieraziaz eta denda euskaldundu nahi duen saltzailearentzat hainbat gomendio eginez. Izan ere, denok gara erosle, eta batzuk dendari ere bai. *Normaltasuna* hitza entzutean, normalean, berez, ia ohituraz egiten dena datorkigu burura, eta euskararen normalizazioak bizitzaren egoera eta behar guztietara gure hizkuntza eramatea esan nahi du.

Bergara

Aurrera darrai, arrakasta handiz, Bergaran Azaro Abendu Musikalak. Datorren

astebururako, Bergarako Udal Musika Bandaren emanaldia iragartzen da, igande eguerdiko 12.30etan Nove-dades antzokian.



Gatzaga

Eskupeta hotsak ez dira oraindik aleratu Gatzaga inguruetan. Orain aste bi protesta ekitaldia burutu zuten bailarako ekologista taldeek Jarindoko gainean, "txori txiki mordoia hegoaldera bidaian ikusi ahal izan zuten, baita antzar talde dotore batzuk ere goi xamarretik (eskerrak horri!)".



Bidali diguten agiri batek dioenez, "Testimonialki ehi-za horma bat desmontatu zen, Sefokonak legezkatzen dituen 1.500dik gora diren hegaztiak hiltzeko postuak (Gipuzkoan bakarrik) salatu asmoz".

Ehizari buruz udaletan aurkeztutako mozioek, Bergaran bakarrik jaso dute erantzunik.



Telefax-kopiagailuak

ZERBITZUA

Hau da RICOH-ren giza ikuspegia: zerbitzu teknikoaren ikuspegi arin eta eraginkorra, arazoak denboraldirik laburrenean konpondu ahal izateko. Zerbitzu-ikuspegia gure erabiltzaileak informatu eta trebatzeko, kopiagailu eta telefaxaren errendimendua ahalik eta onena izan dadin. Honela, elementu guztiz erabilgarri bihurtzen ditugu gure ekipoak, zure lana eraginkor eta atsegingarriago egin dezaten.

ERAGINKORTASUNA

INFORMAZIOA

ZERBITZUA

ARINTASUNA

TREBAKUNTZA

Informaziorik nahi baduzu, jarri harremanetan MAQUELSarekin.
Avenida 52 etxabea, Tfnoa: 945-24 22 04. Fax: 24 64 97 01008 GASTEIZ

Zerbitzua

□ Eskulanak

Famili eta Gizarte-heziketarako zentruak, eskulangintza ikastaroa antolatu du datozen egunetarako. Piedad Romanen zuzendaritzapean *vandal* teknika eta eztaun lanketa egingo dira, astelehen eta ostegunero. Guztira 27 ordu izango dira, azaroaren 20an hasai eta abenduaren 20a bitartean, eta ikastaroaren prezioa 4.000 pta. Informazioa eskatu nahiz izenematea egiteko, Famili eta Gizarte zentrua, Sta. Teresa 12an edo 79 04 59 telefonora deituz, arratsaldeko 3.30etatik aurrera.

□ Azoka plaza

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Arrasateko Azoka Plazako saltoki finkoak eta kalez kalekoak adjudikatzeke Lehiaketa Publikoaren deialdia argitara eman ondoren, profesional guztiei jakin arazten die Udalak datoren azaroaren 11tik 30era bitartean azokarekin zerikusia duen guztiari buruzko informazio-zerbitzua izango dela udaletxean, goizeko 10etatik eguerdiko 12.30etara, astelehenetik ostiralera.

□ Udal Euskaltegia

Udal Euskaltegiaren beharretarako, instalazioak handitze lanak egiteko ardua Construciones Arrasateri ematea erabaki du Udalak. Handitze lanaren kostua ia zazpi miliotakoa izango da.

□ Dirulaguntzak

Drogaren prebentzioan, Alkoholzale Anonimoei eta tratamenduan dauden drogazaleei dirulaguntzak emango dizkie Udalak. Lehen elkarte horrek 93.645 ptako laguntza jasoko du, eta drogomenpekotasunaren tratamenduarentzako laguntza baremoa, berriz, %100ean geratu da. Tratamenduan jartzen den drogazaleari %100ean ordainduko zaio sendabidearen gastua.

Txandaka

EE: GOGOETARAKO ORDUAK

Hasteko eta joandako hauteskundeak baloratzera pasatu aurretik, hemen doakizue Hondarribitik, Bidasoa ertzetik, arrasatear guztioi nire agur beroa.



Iñaki Arregi (*)

Aldi berean, *Arrasate Press* argitalpena posible egiten duten guztien lana eskertu nahi nuke. Kanpoan bizi garenok benetan esker-tzen dugu aldizkari honen bitartez gure herriaren berri, oroipen eta bilakaera jakin ahal izatea.

Eusko Legebiltzarrerako egin berri diren hauteskudeen emaitzek Euskadiko Ezkerrarentzat hutsegite garrantzitsua suposatu dute eta honela aitortu genuen 28an bertan, gaueko 10.30etan, Ercillan emandako prentsaurrean. Eta honela adierazi genuen berriro bi egun beranduago Batzorde Exekutiboaren bileran.

Ilusioz betetako kanpaina nekagarri baten ondoren, militanteen aldetik ahal-egin eskerga eginda gero, EEren botumeileen zati handi batek ez zituen bere botuaz baieztu euskal gizarteari aurkeztu genizkion proposamenak, eta abstentziora jo zuten.

Arrazoi desberdinak egon daitezke hauteskunde beherakada honetan. Alde batetik, III. Biltzarrean teorizatu genuen adostasun edo kontsentsu estrategiaren gestioa, izan ere -nire ustez zuzena bada ere- gehiago argitu beharreko estrategia, alderdiaren nolabaiteko iluntzea suposa dezkeelako, eta hau dugu EEren kasua, ordezkaritza txikia bait dugu eta gainera -zenbait instituziotan ezzik- oposizioan.

Beste arrazoiren artean, Gobernu aukera konkretu bat egiterakoan hiritarren aldetik nolabaiteko indefinizioa somatu dela esan genezake. Agian aukera egin behar zen baina, nolahi ere, Herri honetako hiritarrek beren lehentasunak adierazi dituzte, eta EEren proiektua osatzen dugun guztioi azterketa sakona, gogoeta irekia egi-

tea dagokigu, eta etorkizunari begira.

Urtarrilean gure IV. Biltzarra egitera goaz. Berriro ere irekia izango da Herri honetan indar sozial-demokrata, aurrerakoi eta autogobernatu haundi bat kontsolidatu daitekeela uste duten guztiontzat, hain zuzen ere, autogobernuaren berdintasun eta sakontzeruntz azkarrago aurreratzeko bide emango digun indar-raren alde dauden guztiei irekia.

EEen denok eztabaidatuko dugu: afiliatu, sinpatizante, lagun... denok, eta ausartasunez eztabaidatuko dugu, zeren gure hutsegitea (beste indar politiko batzuk ere izan dutena, alegia) aitortu dugun bezalaxe, sinisten bait dugu eta horretarako gogoa izan ere, EEren proiektuak aurrera segitu behar duela. Ireki egingo dugu proiektu aurrerakoi hau euskal gizartearen agertzen diren eta gure Udalerrietan -baita Arrasaten ere- EEko jendeak bizi dituen errealitate politiko eta sozialetara.

Gure ideiak aurkezten eta gure lana egiten segituko dugu betidanik bultzatu gaitun helburupean: Euskal Herri gero eta libreagoa eta solidarioagoa izateko.

(*) *EEko kidea.*


KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

LILURA -k
zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 69 72 ARRASATE



Berrogeitamar lagun baino gehiagok erantzun zion bilerarako deialdiari

Obretarako baimena beharko

Gremioekin egindako bileran desadostasunak

Legez orain arte ere hala izan arren, aurrerantzean kontrol handiagoa eramango du Udalak herrian egiten diren obrei buruz. Edozein lan mota egiteko baimena eskatuko da, batez ere urtarrietik aurrera, eta hala jakin arazi zitzaien astelehenez Udaletxean izandako bileran obretako hainbat gremiotako ordezkariak. Bilera ireki batean, hirigintza saileko arduradunek kaleetako obretan edukiontzia erabili beharra aipatu zuten, arearekin ur sareetan ataskurik gerta ez dadin. Bestalde, hondakin soliduen bilketa egunak astelehen, astearte eta asteazkenak direla gogora arazi zieten bildutako berrogeitamar igeltsero, margolari, iturgin eta abarri.

Era berean, arauak betetze aldera, obra bakoitzerako behar den tramitazioa errespetatzea eskatu zitzaienten, etxe batean lana egitera doazenean baimenak

aterata edukitzea exigitu diezaietela etxeko nagusiei, askotan lehiatilako tramitazio hutsa izaten dela esanez. Gremioen aldetik eztabaida sortu zen bileran, konpetentzia desleiala eta tramitearen atzerakizuna atxakiatzat jarriaz. Lizentzia fiskalarekin dituzten arazoak, eta profesional ez den jende asko baimenik gabe eta merkeago lan egiten ari dela jakin arazi zuten bildutakoek. Bere interesak bakarrik defendatzea leporatu zioten Udalari. Bileran, beraz, bi gauza atera ziren argi: Udalak baimenen kontrol zehatzagoa eramango duela aurrerantzean, legea aurretik ere indarrean bazegoen ere, urtarrietik aurrera obrarik txikienerako ere udaltxera joan beharko dela. Horretarako obretako profesionalen laguntza eskatu zuten, bileran agerian geratu zirelarik gremioek dituzten hainbat arazo.

Usteak uste

Arrasateko Udalak herriko hiru enpresari espedienteak irekitzea erabaki du, Deba eta Aramaio errekek zikintzeagatik. Langarrenari, Ederlan, ezin izan zaio berdina egin, Eskoriatzakoa delako.

Argi dago legeak aplikatzeko dauden mugak, baina are gardenagoa da kutsadurak ez duela borrelakorik errespetatzen. Txernobilgo ke erradioaktiboak ez ziren Sobiet Batasunaren mugetan gelditu eta Eskoriatzan edo Gesalibarren isuritako zikinkeriek Debaraino doazen urak kutsatuko dituzte, Bergara, Plaentzia, eta Elgoibarren zehar joan eta gero.

Joanak dira gure ibaiak arranez josita zaudeneko garaiak eta iraganak, orobat, Deba ibaian bainatzen ginenekoak.

Badakit ibaien kutsaduraren arazoa ez dela lantegiak isuritako zikinkerietara mugatzen, denon etxetatik doan zikina ere kontuan hartu beharrekoa dela. Horregatik gure ibaiak buruz berba egitea komeniko zaigu geroz eta gehiago, ozenki pentsatzen eta eztabaidatzen has gaituzten, Deba, Aramaio eta inguruko beste errekek infekzio-gune arriskutsuak bihurtu aurretik.

Udako Euskal Unibertsitatearen babesean aste honetan izandako hitzaldia adibidez, ezin hobeto datorkigu gaia zenitratzen hasteko. Zer egin etxetatik doan kutsadura jaisteko, zer lantegietako arduradunek horrelako astakeriarik egin ez dezaieten, eta zer udalaren isunak seriotan hartzeko?

Jose Aranzabal



Mila hitz baino
argiagoa da
irudi bat



GUBI ILEAPAINDEGIA

Otalora 5, 1. A, Tfnoa: 79 12 74

**E D E L
TAPIZTEGIA**

Gortina
Alfonbra
Koltza

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA



Kalean jolasteaz gain, ekintza batzuk izango dituzte umeek

Urtarrilean Txikilandia

Azken Gobernu Batzordeak dirulaguntzak onartu

Datorren hilabeteetarako ekitaldi sorta handia prestatuko da ume eta gaztetxoentzat, aste honetako gobernu batzordean hartu dira bakoitzari izendatuko zaion diruari buruzko erabakiak. Urtarrilaren 2tik Sera Txikilandia Gabonetako Jolas Parkea izango da kiroldegian, bi milioi eta erdi pasako aurrekontuarekin

Hori baino lehen, hala ere, abenduaren 10etik 14era antzerkiaren astea izango da, eskoletan bertan Eskolaurrekoentzat eta Amaia antzokian OHokoentzat. Antzerkiaren asteak

milioia eta berrehun mila ptako aurrekontua izango du. ATBkumeentzat hasi berria duen programazioaren barruan, *Bapirulauke* programarako dirulaguntza eman du Udalak, saioretan zehar banatuko diren opari eta lehiaketetarako.

Helduxeagoentzat, eta sexualitateari buruzko informazio bezala, hitzaldi sorta antolatuko da, OHoko 8. mailako ikasleentzat. Mari Karmen Gonzalez, Gloria Gonzalez eta Milagros Zenarruzabeitia Psikologo-sexologoak izango dira hizlari, ikastetxeetan bertan.

□ EpaiKETak

Datorren astean bi epaiketa izango dira. Hilaren 22an Jose Ignazio Gaztañagarena eta 23an Ramon Bidaburu, Pedro Guridi, Felix Bengoa, Eloi eta Arzamendi, hauetako zenbait espetxean hamar urte daramatenak direlarik. EpaiKETetara joateko autobusak antolatuko dira Arrasateetik eta ostiralean manifestazioa izango da Sebero Altuben, arratsaldeko 7etan.

□ Baserriak berregokitzea

Arrasateko zortzi baserrik jasoko dituzte aurten, Diputazioak baserrien berregokitze eta berrizterako ezarri duen dirulaguntzak, erakunde horrek jakin arazi duenez.

□ Arrasate-Bergara autobidea

Arrasate eta Bergara artean egin asmo den autobidearen proiekturako zaindu beharreko guneen artean, Udalaren gomendioz Etxezarreta, inguruko mendia eta hariztia, Deba ibaia, San Prudentzioko biaduktoa daude.



Jaiotzak

Diaz Jimenez *Cynthai*, azaroaren 6an
Zabala Gonzalez *Ane*, 11n


Eskontzak

Iban Bolinaga & M^a Cristina Bragado.
Azaroaren 10ean. Zibilez.
Anton Herrero & M^a Victoria Barreno.
Azaroaren 10ean. Zibilez

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ




Kontzesifio 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale 11. Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

1990



SASKI NASKI

Lehiaketa

OKENDO KIROLAK



Zatoz gurera  ikustera.
Banatzaile ofiziala

Jose Aranzabal


TB, HI-FI, BIDEOKAMARAK



ASTE HONETAKO IRABAZLEAK

- ▶ Antxoka
- ▶ Shaid R. Mehasi
- ▶ Iraitz Urrutia

J. URIARTE



Ze egunetan emititzen da BAPIRULAUKE ATBn?

ASTE HONETAKO GALDERA

SASKI NASKI ZOZKETAKo opari handiaren zozketa, urtarrilaren 30ean egingo da.


ERANTZUNA:

Izena: Helbidea: Tfinoa:

Ihardunaldi Pedagogikoak

Hezibide elkarteak antolatuta, irakaskuntzan LOGSE legearen ondorioz gertatuko diren erreforma eta aldaketei buruzko ihardunaldi pedagogikoak izan dira elkarte horretako ikastetxeetako irakasleentzat. Antoni Zabala izan zen hitzaldiak eman zituen, azaroaren 8 eta 9an, irakaslegoaren prestakuntzak gai honetan bereziki duen garrantzia kontuan izanik. Tony Zabala katalana Edukazio Ministraritzako aholkularia izan da erreforma kontuetan, eta hitzaldi modua izan beharrean, elkarriketa eta eztabaida erara tratatu nahi izan zuen gaia Arrasaten.

Gurasoentzat ere gaia garrantzitsua dela kontuan izanik, horientzako hitzaldia ere izan zen Amaia antzokian.



AEDko talde ezberdinek, egitasmoen berri eman zuten

Zinegotziek euskaraz ere bai AEDk maiatzeko hauteskundetarako horrela eskatuko

AED elkarteak joan den ostiralean burutu zuen bere urteko batzar orokorra, aurkezpenaren esan zen bezala, "aurrerantzean urtean egin nahi diren hiru edo lau bileretatik bat". Aztertu zirenen artean, maiatzean izango diren udal hauteskundeetarako alderdiei hautagai euskaldunak aurkez ditzaten eskatzeko asmoa izan zen aipagarri. Izan ere, Udalaren hizkuntza jokaera dela eta, sozialistek berriki sortu duten polemikari erantzuteaz gain, zinego-

tziek euskaraz ere jakitea eskatuko die AEDk alderdi politikoei.

Herriko 600 bazkideekiko harreman zuzenagoa lortzea izango da aurrerantzean elkartearen politika eta baita bazkide berriak egitea ere, gaztetxoaren artean batez ere. Guzti hori, eta batez ere bazkideekiko harremana sakontzeari buruzko ideia maiatzean elkarteak egin zuen mintegiaren ondorio izan da. Bertan, gazteen partaidetza areagotzeari ere garrantzia ematea erabaki zen.

Adi!

INGELESA

Edozein maila

ORDUA: Goizeko 10ak eta 12ak artean
Arratsaldeko 2ak eta 4ak artean.

Aproposa: etxeakoandrentzat, langabetuentzat,
ikasleentzat, dendariantzat eta
ordu horietan libre dauden guztientzat

PROMOZIOZKO PREZIOAK

OH-ZKE

Araba Etorbidea 4,
Tfnoa: 79 01 32
ARRASATE

LOREA

Oinetakoak
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ

LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



Beira bezala, papera batzeko ontziak jar daitezke

Paper erabiliarekin zer egin?

Deba Garaian ez dago bildutakoa birziklatzerik

Bailarako ekologisten eskutik, paper birziklatuaren inguruko sentsibilizazio kanpaina ugari egin izan da, eta erabilitako papera etxean pilatzeko gonbidapenak ere luzatu izan zaizkigu. Pilatutako paperok Takoloko edukiontzietara eraman eta erabilgarri izango zirela uste zutenek, bildutakoa erre egiten dela jaso zuten albistea. Paper horri irtenbidea emateko badira zenbait enpresa pribatu, kopuru handietan baino papera biltzen ez dutenak, eta kalitatean ere sailkatua dutenak: baliagarrie-

na ordenagailuko papera omen da, eta egunkarikoak atzetik, beti ere paper mota ezberdinak nahastu barik.

Amilotx talde ekologistak harremanak hasiak ditu Gasteizko enpresa batekin, bailarako udalen laguntzaz biltzeko ontziak jartzeko bideak aztertzeko. Izan ere, eta hasiera besterik esan bazen ere, Deba Garaiko Mankomunitateak epe luzera du eta, papera tratatzeko lantegia jartzeko asmoa. Arrasate Press astekariak ere paper birziklatua erabiliko du aurrerantzean.

Auzoak

Santa Teresa auzoan eskailera konponketa egiteko proiektua onartu da, eta Juan Mari Osinaga arkitektuari izendatu zaio, 4 milioi eta erdiko kopuruarekin.

Anboto kalean, berriz, haur parkearen egokitze proiektua onartu egin da, eta Udaleko zerbitzu teknikoek burutuko dute, bederatziehun mila pezetako aurrekontuarekin.

Roneo Ucem

Roneo Ucem ek 600 milioi ptako inbertsio prozesuari ekingo dio datorren hilean, 1991ean zehar iraungo duena. Honela, Arrasateko lantegian hasitako inbertsio programa osatuko du, 89-90 urteetan 1.700 milioitara iritsiaz. Inbertsio berriak Arrasateko planta berriko teknologian erabiliko dira.

Al Andalus

Joan den asteburuan izan zen Arrasate eta inguruetan bizi diren andaluziarren batzarra, Monterron jauregian. Aurtengo urtarrilean bertan sortu zen elkarteak 260 bazkide ditu dagoneko, eta baita Erguinen lokala ere.

Espedienteak

Deba eta Aramaio erreketan kutsadura gehitu dela eta Udaltzaingoa egindako salaketa baten ondorioz, *Amat* eta *Arrasate* kooperatibei espedienteak jartzea erabaki du Udalak, hondakin kutsatzaileak errektara botatzeagatik.



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Otalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...
Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, asteleheneetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE

Joan den astean, Bergarako BBV-ko zuzendariak, **Xanti Gabilondok**, eta **Jesus Mari Eguren**ek **Libreton BBV**ko saria Golf autoa entregatu zioten **Julio Artziniegari**. Giltzak eskuan eta autoa atzean, pozik, nola ez. Zorionak! ▶



Juan Carlos Irizar eta Soraia Agirregoikoa bisitan etorri zitzaizkigun, diska berria ekarriaz. *Cálido color de Otoño* deitu diote, eta ilusio handia dute, aurkezpena Arrasaten egin behar dutela eta. Eta ez hori bakarrik. Ezkondu ere egin behar omen dute. Beraz, zorionak bi aldiz!



San Fermin egunean ezkondu ziren **Miriam Guridi** eta **Mikel Barragan** bergararrak, Elusuko elizan. Ezkon osteko bidaia Kanada aldera egin zuten. Zorionak!

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97



Ugari dira aspaldian Arrasaten ireki diren dendak. Yolanda

eta Manolik hilabete daramate eurenarekin.

Lentzeria, ohialak eta antzeko gaiak saltzen dituzte Olarte kaleko Sikolen, eta pozik ikusten dira orain artekoan.

◀ Zorte on!

Izen PROPIOAK

● **ALBERTO ROT, 23**, gasteiztarra, Mirandes futbol taldera joan berri da. Alberto Mondrako jokalaria izan da aurtengo denboraldian orain artekoan, eta Burgosko taldera joateko erabakia hartu du. Aurretik, Españolen, Eibarren, Lemoan eta Alavesen izan da futbolari.

● **JOAKIN ANTIXIA, 33**, atxabaltarra, indukziozko sukaldeko plakarentzako izena asmatzeko Fagorrek antolatua izan da *Fagor: El calor frío* esaldiarekin. Jokinekl injinerutza tekniko industrialia ikasi zuen Arrasateko Eskola Politeknikoan eta 9 urte daramatza Coprecin lanean. Lehiaketan 315 lagun aurkeztu dira, eta hiru sari banatu dituzte.


● **MARTXEL KANTAURI, 31**, atxabaltarra izan da lumaz idatzitako lanen sariketan helduen mailan 3. saria jaso duena. Sariketa Tamayo paperdendak antolatua du Euskal Herri mailan, eta aste honetan Monterronen dago.

Auñamendiren *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco M* hizkira heldu da, eta baita **Mondragon** hitzera ere. 34 orrialde eskaintzen dizkiote liburuan gure herriari, lehengo eta oraingo argazkiez lagunduz.

Herriko historia, auzoen berri, kantu eta bertso zaharrak eta biztanleriari buruzko zehaztasunak jasotzen dira. Bukaeran, baita Mondragon izenez ezagun

izan diren herritarren bizitzaren hainbat

▲ zertzelada ere. Duda barik, mondragoetarrok irakurri beharrekoa.



ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea 47, beheka Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate. 79 98 94



Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE



Otolora 2, ARRASATE

Antimilitarismoa: moda baino zerbait gehiago

Golko Pertsiarra, Itsas armadara joan beharra, soldadutzari ezetza, zozketa... objezioa eta insumisioa haziaz doan uhina dira

Golko pertsiarreko istiluak, itsasuntziak hara bidali beharrak, eta azken aste honetan zozketak, areagotu baino ez dute egin antimilitarismoa.

Ez bakezaletasuna

Estatuko Armadaren aurkako jarrera da antimilitarismoa. "Jende askok esan izan du antimilitarismoa antibiolentzia dela, baina ez da hala nahi eta nahi ez". Kakitzatek onartzen ditu armada batzuk, herriak kanpotik etorritako eraso baten aurka sortuak. "Europako ejerzitoen egiteko bakarra zapaltzailea, opresiokoa da. Horretaz aparte, guk nahi duguna gizarte desmilitarizatua da, armadarik gabeko gizartea, baina ez antibelikoa, herri batek, zirikatzen badute erantzuteko eskubidea izan behar du eta", dioskute Arrasaten Garibai Etxeko Gazte Zerbitzuan objezio eta insumisioari buruzko informazioa ematen duten gazteek. Testuinguru horretan ez du, euren ustez, leku-

rik soldadutza profesionalari buruzko eztabaidak. Bakezaletasuna erabat ezberdin ulertzen dute, ordea. Indarkeriazko metodoen aurka egotea da bakezaletasuna.

Euskal Herriko armada-rena gatazkatsua da" diote irrifarrez, eta herritik sortutako armadaren defentsa egiten, euren artean betiko eztabaida dela adieraziz. Agresioak, nor bere herria defendatzeko eskubidea... aipatzen dira beste batzuen artean, "Euskal Herriko Kapitania Jeneralarena politika fikzioa da gaur egun".

Arrasaten Kakitzat

Estatu mailan MOC bezala, Euskal Herrian KEM (Kontzientzia Eragozleen Mugimendua) eta Kakitzat daude, eta gure bailaran mugimendu antimilitarista Kakitzaten inguruan dago antolatua, Gipuzkoako herri gehienetan bezala. EMK eta LKiko jendea barruan dagoen arren, besterik uste bada ere, independente asko dago eta eta koordinadora antimilitarista da.



Insumiso presoen alde ekintza ugari burutzen dira

Informazioa funtsezkoa da gazte hauentzat eta oso gustora daude objezioa eta insumisioari buruz informazioa emateko jarri duten bulegoarekin. "Irailean jende mordo hurbildu da, guda dela eta, informazio eske etortzen dira, eta gero denak insumiso egiten ez badira ere, jakinean dagoen jendea gero eta gehiago da. Irailean bakarrik, 17 insu-

"Ez da gazte mugimendua, herritarra baizik, aukera politikoa da eta"

miso egin ditugu". Hori ez da, hala ere, garrantzitsuen, debatea kalean jartzea lortu da eta. Hitzaldiak, antzerkiak, informazioa, horixe da kontzientzia sortzeko Arrasaten erabili duten bidea.

Soldadutzarena lehen

urratsa da, "estrategia oso ona izan da, soldadutzaren aurka gizarte guztia dago eta. Hori aprobetxatuz armadari buruz, soldaduskari buruzko debatean sartu dugu gizartea. Azkenean, soldaduskara derrigor joan beharragatik da batez ere txarra armada jende askorentzat, hurbileko arazoa delako".

Orain arte lanik gehien soldaduskaren inguruan egin dute, eta hori akatsa izan dela erizten diote. Kontzientzia antimilitarista indartu nahi lukete, armadaren aurka orokorrean, orain arte oso bide egokia soldadutzaren aurkako arren. Urtero, gabon inguruan gerra, jostailuen aurkako kanpaina egiten dute, jarrera hori umetatik indartu ez dadin. Objezio Fiskala, eta soldadutza egin osteko eragozpena, berriaz, sasoi batean soldadu izan arren mugimendu honi laguntza ematen dioten jende helduaren aukera da. "Azkenean, antimilitarismoa ez da gazteen mugimendua, herri mugimendua baizik. Antimilitarista iza-

tea aukera politikoa da”.

Asteburuko protesta

Aste antimilitaristaren ondoren, protesta ekin-tzak burutu ziren, eta Arrasateko ikasleek borroka eguna egin. “Harrituta geratu ginen erantzunaz, inoiz ere ez da hainbeste jende bildu antolatutakoetara. Arrasateko manifan 700 lagun bildu ginen, eta hiri-buruetako igandeko protestan, zer esanik ez”. Jendearen kontzientzia asko igo da, herrian intsumiso espetxeratuak izan direlako, eta Golkoko kontu hori dela eta. Zertarako joan behar dut nik hara? galdetzen du gazteak”.



Hiriburuetako manifestazioetan jende ugari bildu da asteburuan

“Antimilitaristen artean jarrera bakezaleak eta bakezale ez direnak daude”

Kristau baten jarrera

Jon Ancin San Viatoriko erlijiosoa da, eta Arrasateko Kakitzten dihardu intsumisioaren alde, amankomunean daukaten ideialaren alde lanean. “Taldeko besteek ez bezala, arrazoi bakezaleengatik hartu dut jarrera antimilitarista;

niretzat borroka ez da soldadutzaren kontuarekin amaitzen, antimilitarismoa estruktura militar guztien kontra joatea da”. Jonek ezetz esaten dio edozein soldadutza motari, “indarra izateak ez bait du izan behar agintzeko bide, eta indarkeriaz egiten diren ekintzetan militarismoaren egitura dago sartuta”.

Erligiosoen artean ez da orain arte ados edo aurka egotea planteatu, baina orain hasia da, eta azken belaunaldietan gehienak eragozleak dira, eta badago kontzientzia. “Gazte kristau laikoen artean oraindik kontzientzia ez da garbigia, baina zabaltzen ari da. Atzeratuta gaudela esaten bazaigu ere, mobida honetan nahiko azkarrak izan gara”.

Zorioneko zozketa

Batzuk adina iritsitakoan eta atzerakizunik gabe sartzen dira zozketan. Ikasketengatik prorrogan egon eta gero beste batzuk. Asteburu honetan izan da dioxosozko zozketa, eta 129 arrasatear sartu dira bolatxoak erabakitako zorian. Gehiengoari soldadutza inguruetan egitea egokitu zaio, baina badira beste hamasei gazte bolatxoak itsas armadara bidali nahi dituenak.

Zenbaitek aurretik erabakia zuen ez joatea, eta intsumisioa nahiz eragozpena paperatzen adierazia ere bai. Beste zenbaitek, azken beltzak jota pentsatu du “ni ez nauk joango”, eta ohituraz, edo “bizitza halakoxea da, zer egingo zaio?”, joan egingo dira beste batzuk.

“Amak ez dit soldadutzura jaten uzten” esatea txantxa izan da orain arte, baina badaiteke aurrerantzean egia bihurtzea.


**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irauliko duen hiztegia edukil ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzazko Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzki dotore eta, aidi berean, erabilerrazak.
- Marmol berde koloreko zurtz-lamino azalak, 24 kilatetako urrez sultan eginak estanpazioekin.
- Landare-hariz jositako pleguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hezur kolorekoa.
- Fotokomposizioa bi zutabelan egina, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota irakurdez testua hobeto irakurri eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditunik jakintsuenak direnek zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterkeltarako.

Euskara ikasteko erabili beharreko obra


LASTER PREZIO IGOERA

Ernesto Amaia Argitaletxea

Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO

Tfnok: 94-445 46 89 eta 446 69 93

OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)



Aterpe barik jokoan

Ez zen inungo sorpresarik eman

IKER




SUKALDE-ERAKUSKETA: Udala enparantza z/g, Tfnoa: 79 00 43
BAINUGELA-ERAKUSKETA: Zarugalde 52, Tfnoa: 79 99 42
ARRASATE



ZAPATIDOS

Olarte 9, Tfnoa: 79 41 29
ARRASATE



IGAMO Kartonaiak S.A.

Kaxa tolesgarrien fabrikazioa
kartoitxo eta mikroldotan.
Offset inprimaketa

Goian industrialdea, Tfnoa: 945 - 45 54 52, Faxe: 45 54 82 LEGUTIO



A taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Atutemelele	6	6	0	0	35	9	12
Bizkorrak	6	6	0	0	31	11	12
Golfos Persicos	6	5	1	0	38	12	11
Zortzikin nahiko	6	5	0	1	45	20	10
Kakajauri	6	3	1	2	16	17	7
Autovia patutia	6	2	1	3	18	29	5
Potzorri	6	2	1	3	13	23	5
Mutikotes	6	2	0	4	12	16	4
Cañ. Pto. Urraco	6	1	2	3	10	14	4
Bar Alcalde	6	1	1	3	10	16	3
Ezkinako ontzak	6	1	1	4	20	37	3
Ugarixoak	6	1	1	4	15	27	3
Bayern de Leniz	6	1	1	4	15	33	3
Yokese	6	0	2	4	5	18	2
Totala	84	36	12	36	289	289	84

B taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Zuloak	6	6	0	0	40	15	12
Laso Arregi	6	5	0	1	37	16	10
Los Heredia	6	4	1	1	43	16	9
Fut. Club Lobo's	6	4	1	1	25	19	9
Kriskibalda	6	4	0	2	25	18	8
Arrasate Kirolak	6	4	0	2	25	20	8
La ira de Odin	6	3	0	3	32	21	6
Aizpun bila	6	3	0	3	29	25	6
Okendo Kirolak	6	2	1	3	22	24	5
Toki Eder	6	2	0	4	19	40	4
El Regreso	6	1	1	4	25	36	3
Solano 90	6	1	0	5	25	32	2
Resakas	6	1	0	5	21	49	2
Gimnasio Saioa	6	0	0	6	9	46	0
Totala	84	40	4	40	377	377	84

C taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Fosforos	6	6	0	0	54	23	12
Alperrak	6	6	0	0	46	13	12
Pepelus	6	5	0	1	25	20	10
Sannan Hussein	6	4	1	1	22	13	9
Diego Antonio	6	4	0	2	45	25	8
Zelai	6	3	0	3	39	24	6
Artano	6	2	2	2	33	22	6
Steaua del grifo	6	2	2	2	17	27	6
Bar Kajoi	6	2	1	3	34	21	5
Kannabis boys	6	2	1	3	27	37	5
Los motz	6	2	0	4	28	33	4
Muru Barren	6	2	0	4	17	31	4
Neptuno	6	1	2	3	16	33	4
Bacilona	6	1	0	5	23	41	2
Danok lagun	6	1	0	5	17	34	2
M.G.M.	6	0	1	5	10	46	1
Totala	96	43	10	43	453	453	96

D taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Argi ibili	6	6	0	0	58	18	12
Camerun's	6	5	1	0	44	11	11
Potroak	6	5	0	1	37	18	10
Artzanko's	6	4	1	1	35	14	9
Adelaida	6	4	0	2	43	17	8
Sisepuede	6	4	0	2	21	9	8
La ban. de Pepe	6	2	2	2	23	28	6
Babariak	6	2	2	2	19	23	6
Gau azkenak	6	3	0	3	19	16	6
Balaika	6	3	0	3	18	26	6
Inter de alimañas	6	2	0	4	15	39	4
Avinagraos	6	1	1	4	16	28	3
B.B.V.	6	1	1	4	14	42	3
Rayo Vatika-no	6	1	0	5	20	37	2
Gastaos	6	1	0	5	20	45	2
Sukumurus	6	0	0	6	12	43	0
Totala	96	44	8	44	414	414	96

Arrasate
OPTIKA - OFTALMIKA
ERABILI ETA BOTATZEKO
LENTILAK.
ESKATU INFORMAZIOA
Kontzezino kalea 6, Tfnoa: 79 25 98

KAJOI
TABERNA
Erdiko kale 22,
ARRASATE



Gola jaso arren berriz ekin behar besteen atezaina ere antzeko posturan geldi dadin eta horrela partidua irabazi. Argazkiari begiratu eta gero, aipatu egin behar larunbateko partidua horretan guztiak blai eginda bukatu bazuten ere, atezain biak izan zirela irabazle, zentzu horretan noski.



**LOPEZ
BIZIKLETAK**

Alfonso X Jakintsua 6,
Tfnoa: 79 96 35 ARRASATE



Kafetegia

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

E maitzak

A taldea

Golfos Persicos 8	Bar Alkalde 3
Kakajauri 1	Cañon Pto. Urraco 1
Atutemelele 5	Autovia pa tu tia 0
Ezkinako ontzak 6	Bayer de Leniz 7
Zortzikin nahiko 9	Ugarixoak 4
Bizkorrak 4	Potrozorri 1
Mutikotes 1	Yokese 0

B taldea

Zuloak 6	Resacas 2
Solano 90 3	Los Heredia 10
Lobos 4	Gimnasio Saioa 2
Arrasate Kirolak 5	Aizpun Bila 6
Laso Arregi 2	Okendo Kirolak 1
Toki Eder 2	Kriskibalda 13
La ira de Odin 12	El Regreso 5

C taldea

Alperrak 5	Artano 4
Steaua del grifo 3	Bar Kajoi 11
Sannan Hussein 5	MGM 1
Diego Antonio 14	Murubarren 2
Fosforos 11	Neptuno 3
Kannabis boys 6	Bacilona 4
Zelai 3	Los motz 5
Danok Lagun 3	Pepelus 5

D taldea

La Banda de Pepe 3	B.B.V. 3
Argi Ibil 12	Gastaos 4
Potroak 3	Adelaida 0
Avinagraos 4	Babarias 4
Sisepuede 4	Rayo Vatika-no 2
Inter de Aimañas 3	Sukumurus 2
Artzanko's 2	Gau azkenak 3
Camerun's 5	Baleike 2

J. ANTONIO HERNANDEZ

*Banatzaile ofiziala:
Aguila eta Heineken
garagardoak, Majuelo
eta Cigales Frutos
ardoak.*

*Coca-Cola makin
instalazioa*

Informazioa:

**MESON
MANOLO**

LASO ARREGI argazkidenda



Errebelaketa ordubete

Alfontso Jakintsuaren Plaza 3, Tfnoa: 79 12 75 ARRASATE



Txutak

ALDAKETA GUTXI

J oan den asteen hondarrekoek irabateko lehen aukerak zeuzkatela aurreratzen genuen eta, egia esan, Bayer de Leniz taldeak bakarrik eman zigun arrazoa, besteak garaipenetik gertu egon baziren ere.

Asteburu honetan jokatu diren partiduei begiratuz gero ez dirudi hondarrekoek hondarreko izateari utziko diotenik, talde gogorak izango dituzte aurrean eta.

Lehen taldean jokatu diren partiduen artean ez dago aipagarririk eta seguraski, gauzak ez dira aldatuko ez aurrekaldean eta ezta atzekaldean ere. Bigarren taldean berriz, partidu bat aipagarri, Lobo's eta Los Heredia-k jokatu dutena, hirugarren eta laugarren doazenek hain zuzen. Beste bi taldeei dagokienez ere ez dirudi aldatetarik egon daitezen, aurrean doazena teoriarik ez dute irabazteko eragozpenik aurkituko, eta atzean dabilzanek ezin izango dute aurrekalderako urratsik eman sailkapenean. Dena den, ezin baztertu sorpresen aukera.

*Beñardo
Kortabarria*

DATORREN ASTEBURUAN

A taldea

Cañon Pto. Urraco	Golfos Persicos
Atutemelele	Kakajauri
Ezkiñako ontzak	Autovia patutia
Zortzikin nahiko	Bayem de Leniz
Bizkorrak	Ugarixoak
Yokese	Potrozorri
Bar Alcalde	Mutikotes

B taldea

Solana 90	Zuloak
Lobo's	Los Heredia
Arrasate Kirolak	Gimnasio Saioa
Laso Arregi	Aizpun Bila
Toki Eder	Okendo kirolak
La ira de Odin	Kriskibalda
Resacas	El regreso

C taldea

Steaua del grifo	Alperrak
Sannan Hussein	Bar Kajoi
Diego Antonio	M.G.M.
Fosforos	Muru barren
Kannabis boys	Neptuno
Zelai	Bacilona
Danak Lagun	Los motz
Artano	Pepelus


D taldea

Argi ibili	La banda de Pepe
Potroak	Gastaos
Avinagraos	Adelaida
Sisepuede	Babarias
Camerun's	Rayo Vatica-no
Inter de alimañas	Balaïke
Artzanoko's	Sukumurus
B.B.V.	Gau azkenak

EVSKO-ROT

ORDENADOREZKO ERROTULAZIOA

Legarre pabilioi industrialia, Gipuzkoa Etorbidea, Tfnoa: 77 10 58 ARRASATE



MUGAPE S.A.

Gainazalen tratamenduak
eta estalketak

- Zn, Zn-Ca, Mn fosfatoak.
- Parkerizatuak.
- Anodatzapen elektrolitikoak naturalean eta koloretan

Gaitondo-erdikua pabilioi industrialia z/g,
MALLABIA.

Tfnoa: 943 - 17 48 50, Fax: 174854



Angeles Arozena

Semea askatzeko negoziazioaren bila

Angeles Arozenaren bizitza zeharo aldatu zen duela hamar urte, bere semea, Pedro Guridi, atxilotu zutenean. Ordutik hona, Euskal Herriko beste hainbat ama bezala, espetxetik-espetxera ibili behar izan du, "Pedrotxo"ren arrastoaren atzetik.

— Zer harreman mota daukazu semearekin?

— Canarias-en dago, dauden kilometroetatik eta bidaiak balio duenagatik, ezin da norberak nahiko lukeen bezain sarri joan. Bi hilabetero joaten gara eta ez dugu harreman sakonik izateko aukerarik. Bisitako 20 minutu inguru ikusten dugu, elkarrri ondo entzun ezinik.

— Zer suposatzen du bi hilabete behin Canarias-eraino joan beharrak?

— Diru aldetik ez dago esan beharrik, urrutu dago eta bidaiak garestia da. Guretzat tristea da bidaiak. Behin joanez gero, gutxienez zortzi egun gelditu behar duzu bertan, horrela bi bisita egin ditzakezulako. Egonaldia ez da ba ere pozgarria izaten, bertako jendeak ere ez du nahi izaten eta, euskaldunekin ezer jakiterik.

— Eta funtzionarietako harremanak?

— Denetarik dago, baina normalean beti gu haserrazten saiatzen dira.

— Hamar urteren buruan zeintzuk izan dira garai gogorrenak zuentzat?

— Zaila da esaten, baina sakabanaketa hasi zenean oso gogorra izan zen guretzat. Ospitalean egon zenean ere ez ziren makalak izan, arduraz handiz pasatutakoak. Berarentzat txarrena oraingoa da, geroz eta okerrago bait daude, hasieran sakabanaketa, ondoren isolamendua, orain gradoen kontua... gero auskalo zer asmatzen duten.

— Beste espetxe batzue-

— **“**

Hasieran bai, baina orain lagunak ahaztuta daude”

tan ere egondakoa da, ez?

— Hasieran Carabanchel-era eraman zuten, gero Soria, Alcalá, Herrera, berriro ere Carabanchel, Herrerra buelta, Canarias-era eraman zuten, eta une honek ez dakigu non dagoen, epaiketarako traslatatu behar zuten eta. Hamar urte hauetan pare bat aldiz ere ospitalean egon da.

— Atxiloketa, epaiketa eta espetxera eraman, traslatoak, gose grebak, isola-

mendua, jipoiak, urruntasuna... nola bizi ditu ama batek egoera guzti horrek?

— Ezin da esan, hori norberak pasatu behar du, oso gogorra da. Gainera... gu gauden moduan, etxean ama eta aita bakarrik. Gurean ez dago beste gairik. Esperantzaz, besterik ez daukagu, hori galtzen bada jai daukagu.

— Zertan oinarritzen duzue esperantza?

— Politikaz ez dakit ezer asko, baina beharrezkoa ikusten dut negoziatioa. Arazoak ez dauka beste irtenbiderik, 80 urteko zigorra dauka nire semeak eta.

— Geureak dira eta geureak baldin balira bezala sentitzen dugu.

— *Eta goardia zibil bat hiltzen dutenean?*

— Ez da gauza atsegin-garria, ez dut batere pozik hartzen, baina bakea nahi dugun lehenengoak geu gara eta arazoaren konponbidea euren esku dago.

— *Kalean egiten diren ekintzak nola baloratzen dituzu?*

— Oso inportanteak dira preso daudenentzat, eurak kanpoan egiten denari begira egoten dira eta. Guretzat berriz, dena da gogorra, baina zerbait egin behar da, ezin gara geldirik egon.

— *Presoak egoera gordinen bizi direla jakinekoda, baina nola ikusten dituzu moral aldetik?*

— Ez dakit nondik ateratzen dituzten indarrak, baina guk eurak animatu beharrean, eurak dira gu animatzen gaituztenak. Gehien esker-tzen dutena kanpotik etortzen den edozer gauza da. Lehenengo urteetan lagunak eta, primeran portatu ziren, bisitak, postalak... baina orain ahaztuta daude. Kaleko jendea lasai bizi da, lehen guztiok bat ginen, orain ez dago besteenganako ardurarik. Amnistiaren aldeko Batzordekoak dira arduratzen diren bakarrak.

Partidurik zailena saskibaloian

Klubari laguntzeko eguna izendatu dute larunbatekoa

Etsai gogorra izango dute aurrean *Centraljet-Euskal Air*, saskibaloitaldekoek, larunbatean Musakolako kiroldegian. Izan ere, lidergoan dagoen *Muebles Martin* taldeak egingo du salto Musakolako kantxara arratsaldeko 19.15etan, irabazi asmoz.

Muebles Martin Donostiako Jesuiten ikastetxeko taldea da, eta dudarik barik, bigarren mailan dauden taldeen artean indartsuena da, bai diruari eta baita plantilari dagokionez ere. Liga hasieratik talde honek argi utzi zuen euren asmoa lehen mailara igotzea zela, iaz lehen maila horretan zeuden bost jokalarit fitxatu bait zituen aurtengo denboraldiari begira.

Ez da arraroa *Muebles Martin* taldea une honetan bigarren mailako liderra izatea. Lidergoan egote hori zein erraza egin zaionaren adierazgarri izan daiteke esatea, batzbestekoak atera eta gero, partiduko 104 tanto egiten dituela, 66 jasotzen dituen bitartean.

Arrasateko taldeak hain talde in-



dartsuari irabazi nahi badio ezin du inolako akatsik izan, konzentrazio handiaz jokatu behar du, izerdi asko atera eta gainera zortea izan. Bisitari garrantzitsu hori datorrenez *Centraljet*-eko zuzendaritzak, klub-ari laguntzeko

eguna izendatu du biharkoa, ondorioz guztiek sarrera ordaindu beharko dute. Ahal den jende gehiena Musakolara joan dadin sarrerarekin batera, Malagarako bi laguntzako bidaia baten zozketa egingo da



Eskiak konpontzera Txanpara

Arrasateko eskiazaileei zuzenduta, zerbitzu berria ireki dute *Txanpa* dendan, konponketa zerbitzua hain zuzen. Eski denboraldiari begira ekarri dute *Txanpakoek* zerbitzu hau, tresneria berezi batez eskiak plastifikatu, eskien ertzak landu, urratuak kenduz... eta era horietako konponketa edo hobekuntzak egingo ditu argazkian dagoen **Daniel Lasagabasterrek** dendako nagusiak alegia.

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

M MIKEL

Eskaiola, pintura eta kortxoeko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE

ANTONIO MERINO

Hirugarren Behobia-Donostian

PODIUMA



Antonio Merino antzuolarrak, pasa den igandean Behobia eta Donostia artean burutu zen lasterketan, helmugara hirugarren iristerakoan, izugarritzko sorpresa eman zien bertan zeuden ikusleei. "Egia esan, niretzat ere sorpresa handia izan zen, aurrez, imajinatu ere ez bait nuen egiten. Lagunei eskertu beharko diet, ez nuen eta, froga horretan parte hartzeko asmorik, joateko esaten zidaten, ez nuela zer galdurik eta. Lehen aldia zen hamabi kilometro baino gehiagoko frogagaiten nuela, eta zentzu horretan sorpresa izan da niretzat".

1979. urtean hasi zen Antonio Merino atletismo munduan lehen urratsak ematen, eta berak dioen bezala, pasa den igandera arte iraupen erdiko lasterketari izan da, krossa eta 1.500 metroko lasterketak egin bait ditu. "Duela bi urte Gipuzkoako txapelaldun izan nintzen 1.500 metroan, eta krossean ere emaitza onak lortu izan ditut".

Garaipenak aipatu dira aurreko lerroetan, baina garaia txarrak ere igaro behar izan ditu antzuolar gazteak, jendea atletismoa utzia zuela pentsatzera ere iritsi delarik. "Beno, gauzak ez zaizkizunean ondo ateratzen eta

zure izena ez denean entzuten, normala da jendea zutaz ahaztea, baina nik ez dut inoiz atletismoa utzi, soldaduskaren urtean ezik. Azken urteetan ez dut gauza gehiegirik egin, Donostiako entrenatzaile batekin ibili naiz eta ez naiz ondo moldatu haren sistemetara. Utzi egin nuen eta nire kontu entrenatu dut azkenaldian, orain beste batekin hasiko naiz".

Sakrifizio handiko kiroltzat du Antonio Merinok atletismoa, eta are gehiago Euskadin. "Gauza asko utzi behar dituzu alde batera, lagunak, gustoko janariak, parrandak... gainera hemengo giroak ez du bat ere laguntzen, jendea oso berandu erretiratzeko delako, ondo bizitzera ohituta dagoelako. Euskaditik kanpo desberdina da.

Bestalde, laguntza handirik ere ez dago, federazioa gutxi arduratzen da. Egunero entrenatzaile batekin lan egin nahi baduzu eta gauzak behar bezala egin, derrigorrez Donostiarra joan behar zara, eta hori zoriz ordutu lan egin ondoren".

□ Pilotan irabazi

Klub-en arteko txapelketa aurrera doa eta joan den asteburuan Arrasateko taldeak 2 eta 1eko garaipena lortu zuen Hondarribiko taldearen aurkako neurketan. Kadetetan Uribarren eta Zuazubiskar, arrasatear bikoteak, hamazortzi tanto egin zituen bitartean, Hondarribiko Lizarraga-Gonzalez bikoteak hamar bakarrik egin zituen. Senior mailan Uribarren eta Korta arrasatearrek 22-10 galdu zuten Etxabe eta Martiarenaren aurka. Gazte mailan hondarribitarren bikotea azaldu ez zenez, puntua Arrasateri eman zitzaion. Larunbat honetan, klub-en arteko txapelketan ere, neurrak berria izango dute Arrasateko pilotariek, oraingoan Beasaingo taldearen aurka. Partiduak goizeko 10.30etan jokatuko dira Musakolako kiroldegian.

□ Lehen garaipena eskubaloian

Ohizko minutuak jokatu ondoren, Salesianosek 25- Arrasatek 30 erakusten zuen Barakaldoko kiroldegiko markagailuak. Markagailu horrek arrasatearren lehen garaipena suposatzen zuen aurtengo ligan, aurrez lortzeko zorian egon bada ere. Lehen denboran erasoko joko bikaina egin zuten arrasatearrek, baina ezin izan zuten partida erabaki, defentsan ez zirelako oso trebe aritu. Escolapios taldea izango dute etsai ondorengo ihardunaldian.

□ Gaizka Eskoriatzara

Dirudienez, eskoriatzarrek arazo handiak izan dituzte atezain postua betetzeko eta Mondrari atezain bat uzteko eskaria egin zioten. Inolako trabarik ez zuten jarri arrasatearrek Gaizkak hemendik aurrera, eta Mondrak behar ez duen bitartean, eskoriatzarrekin joka dezan. Joan den asteburuan estreinatuzen eskoriatzarren taldearekin eta diotenez, ondo ari izan zen.

AXOLA KLIMA

- AIRE GIROTUA
- AIREZTAPENA
- BEROKUNTZA
- HOTZ INDUSTRIALA
- BERO INDUSTRIALA
- MANTENUA

Tfnoak: (943) 79 90 75 eta (945) 45 54 45- 46

Janis

Ez da oraindik zure txanda iritsi, Janis. Mitomania asekaizak izen berriak eskatzen ditu etengabe, industria diruzalea hildako ospetsuen errautsetatik bazka dadin. Jaiotzaren edo heriotzaren lehen, hamargarren edo ehungarren urteurrenaren aitziakiaz, izen berri bat jartzen digute planterean, ezagutzen zuenak gogoratu dezan eta ezagutzen ez zuenak deskubri dezan. Azkar, hori bai, presaka, mitifikatu/beatifikatu behar den hurrengo izenak tokirik izan dezan platerean.

Ez da oraindik zure txanda iritsi, Janis. Baina laster iritsiko da, zaude ziur. Pe-



likularen bat egingo dute orduan, zure bizitzaren alderdirik morbosoenak aiereratuz. Liburu bat baino gehiago argitaratuko da heamazortzi urterekin zekulako mozkor baten ondorioz ospitaleratu zintuzteneko hura kontatuz edo San Franciscon puntarena eginez eman zenuen sasoiarena. Hitz zehatzez eta irudi mikroskopikoz erakutsiko digute nola azken eguna heldu zitzaizunean xirin-

ga heroinaz bete eta zaineratu zenuen, zure heriotzak eraginiko zirrarak ordurako denda guztietan berrargitaratuak egongo diren zure disko, kasete eta konpaktoak eroatera bultza gaitzan. Eta bi edo hiru edo lau hilabeteren bueltan, zure berpizkundearen zirrara ahultzen ari dela somatzen dutenean, disimuluzko keinu mekaniko



batez botako zaituzte zakarrontzira, prest egongo baita da platerean hurrengo mito berpiztu berria.

Ez da oraindik zure txanda iritsi, Janis, hil zineneko hogeigarren urtea oraintsu bete den arren. Zaude lasai, beraz, beste apur batez. Eta mito bazkagarriaren baldintza guztiak betetzen dituzulako zure bortxaketa kolektiboaren txanda iristen denean, grabatuta utzi zenituen zure arimaren garraisiak tokatan entzuten ditudan bitartean, txoko batera inguratuko naiz, lurrean jarri eta belauak besartean bildurik malko amorratu eta inpotente bat isuriko dut, Janis, malko bakar bat zuretzat.

Mikel Irizar

KOBAYA taldeak aurkezten du: TRIKITRAK


TXOTXONGILU

saioa



- Azaroak 17, larunbata
- Arratsaldeko 6etan
- Amaia antzokian
- Sarrera 200 pta.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Construcciones ARRASATE S

(Lehen Construcciones CODIMA)

Udako-5, Eizabehoa, Erquin auzoa, Ibaeta, 79 04 46
ARRASATE



Gipuzkoako Foru Aldundia

Egoera gainditzeko irtenbideak.

Egoera istilutsuak behin betirako gainditzeko irtenbidea ez da gertatuko, nazioarte mailan erabilpen linguistikoaren baldintzak aldatu eta gizarteko komunitate linguistiko guztien eskubide bortxaezin eta naturalak garrantzitzen ez diren bitartean. Bi bide edo joera kontrajarriak bereiz daitezke hizkuntz komunitateen arteko harremanetan:

1.- Hizkuntz berekoikeria (egocentrismo glotico). Hizkuntz bakar batera itzultzea, ondorio bezala beste hizkuntza guztien desagertzea dakarrelarik.

2.- Hizkuntz-ekologismoa. Hizkuntz komunitate bakoitzak bere nortasuna gordetzen du bere lurraldeko hizkuntza

propio bezala eta hizkuntz komunitateak elkar ulertzeko bigarren hizkuntza bat dute, komunikazio tresna berezi bezala erabiltzeko bakarrik onartzen dena.

Esan beharrik ez dago hizkuntz ekologismoaren bidetik abiatuz bakarrik lor daitekeela munduko hizkuntzen arteko konbidentzia orekatua.

Hizkuntz ekologismoaren kasuan hizkuntza bakoitzak, bere lurraldean funtzio guztiak beteko lituzke. Eta lurralde linguistiko ezberdinen artean dituzten hartu-emanak ez batena eta ez bestearena ez den hirugarren hizkuntza batean emango liriteke.

Edozein zibilizazio hizkuntzak duen bezala, hauek ere izango lukete "ukipen-eremua" deritzana. Orduan ba, bi aldeetan leudeke, albokoaren

hizkuntza, bigarren hizkuntza modura ikasiko luketen giza-banakoak.

Komunitate linguistikoaren iraupena garrantzitzeko behinbehineko irtenbidea litzateke, estatuko egoera Europako zenbait lurralderekin parakatzea.

Estatuaren batasuna ez da aitzakia komunitate linguistiko baten lurraldetasuna bortxatzeko. Lurralde bakoitzeko erabilpen linguistikoaren ezaugarriak honako hauek liriteke:

.- Lurralde bakoitzean funtzio nazionaleraino, hizkuntza bakarra, ama-hizkuntza edo hizkuntza autoktonoa.

.- Estatu mailan sigarren funtzioa betetzeko, beste lurraldeko hizkuntzekin konpartitzen da. Eta lurralde bakoitzeko elebakartasuna ziur-

tatzeko, estatu elebiduna edo eleaniztuna da. Lurralde ezberdinen arteko harremanetan bakoitzak bere hizkuntza erabiltzen du. Beraz, estatuak denak ezagutu behar ditu.

.- Lurralde bakoitzean, zibilizazio hizkuntza modura ikasten den lehena, estatu barruan hurbilen duen lurraldearena da.

Muga linguistikoa alde ezina da eta lurralde ezberdinetako oreka linguistikoa arriskuen jar dezakeen edozein jarrera gogorki zigortzen da.

Egun, azken irtenbide hau uste dalitzatekeela euskararen errekuperazioarako biderik egokiena. Beronek, egoera glotofagikoa konpondu eta neurri handi batean oreka lortzeko aukera eman beharko luke.

Atalataikoan

Arrasateko I. Ihardunaldiak

HITZALDIA

Azaroak 20, asteartea

IRAKASKUNTZA ETORKIZUNEAN?

Irakaskuntza etorkizunean nola planteatzen den.
Aldaketa non datza? Ikaslearen papera, irakaslearena, etab.

Hizlaria: JUANJO OTAÑO ETXANIZ

Ordua: arratsaldeko 7etan.

Tokia: Monterron Kultur Etxea.

UEUren laguntzaz



Arrasateko
Udala



Aurrezki Kutxa
Municipala

Agustin Mondragon

Fagor Txirrindulari taldeko lehendakari ohia

Ia badira bost urte Agustin Mondragonek bere Ford Orion-a erosi zuenetik eta denbora horretan aberiarik ez du izan. Gustora dago autoarekin eta berriro erostekotan, berdina erosiko luke, tradizionalista bait da alde horretatik. *"Autoa gizonaren zerbitzura eta ez bestaldera"* dio Agustinek. Behar bada horregatik, ez omen du gehiegi zaintzen, noiz behinka tailerrera eraman eta han begira dezatela. Gidatzeko bi jokaera ditu Agustin Mondragonek, *"euriaz eta herrietan oso poliki; eguraldi onez eta autopistan, bizkor"*.




Construcciones ARRASATE S. L.

(Lehen Construcciones CODIMA)

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

Tontoretako kondarrak (III)

Klimatizazioa bukatzeko, Is-hinca inguratzen beste egun bi eman ditugu eta ondoren Yungai herri berrira jaitsi gara. Herri berria diot, zaharra 1970. urtean, Huestaran mendiari lur ikara baten ondorioz, erori zitzaion zatiak lurperatu zuen eta. Herri guztia birrindu zen orduan eta 25.000 lagunek, lur eta izotz tartean heriotza aurkitu zuen. Yungaira heldu garenean, azoka animatu eta aberatsean egin ditugu erosketak. Denborarik galdu gabe, berriro ere mendi alde-ra jo dugu, oraingoan Yang-anuko bailarara. Bi laku zoragarriren alboan egokitu di-



tugu dendak eta hurrengo eguneran Pisco mendia (5.850) igotzeko prestaketak egiten hasi gara. Pisco mendia lasai eta arrisku barik igotzeko bi egun behar izaten dira, guk ere horrela egitea

pentsatu dugu, baina alboan denda jarri duten iugoslaviar batzuk egun batean igoko dutela adierazi digute. Abuztuaren 8ko goizeko zazpitan abiatu gara Piskora. iugoslaviarrek, berriz, gaue-

ko ordu bietarako egin dute alde.

Errekasto eta belardi aberatsetan barrena, bailaran gora jo dugu eta poliki poliki inguruak beheko aberastasuna galdu du, altueraren eraginez noski. Laster lehen iugoslaviarrek egin dugu topo, solasaldi txikia egin, mendiaren zailtasunak komentatu eta han joan da atse-den bila.

Bikula batzuk ikusi ditugu iugoslaviarrek alde egin eta berehala. Inguru hauetan bikiuinak ikustea ez da oso gauza aurrunta eta jakina, guk ez ditugunez inoiz ikusi, abere hauen joan etorriei begira eman dugu denborat-xoa.

Hankamotz



EGUNA

17

ORDUA

7.15


LIGA TXAPELKETA 2. DIBISIO NAZIONALA 7. ekitaldia

CENTRALJET-EUSKAL AIR
(Arrasate)

MARTIN ALTZARIAK
(Donostia)
1. sailkatua eta garaitugabea

KLUBARI LAGUNTZEKO EGUNA
Sarrera 200 pta.

Adi: bi lagunentzako eta astebeteko Malagara bidaia bat zozketatuko da etortzen direnen artean.



Apartamentuak
 ikusteko
 bisita-bidaia
 antolatuko ditugu
 asteburuetan

ETXEBIZITZA-MULTZOAK COSTA DORADAN (SALOU, CAMBRILS, MIAMI)

- Itsasotik ondo-ondoan
- Antena parabolikoa
- 1 eta 2 logelako apartamentuak
- Pizina eta kanpoko aparkalekua


Les Gavines

**HIPOTEKAZKO
 MAILEGUA**
 10 URTETARA %13'75 can



INFORMAZIOA



Anboto

INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK / INVERSIONES Y SERVICIOS
 AHOLKULARI INMOBILIARIOAK / ASESORES INMOBILIARIOS


Manuel Niñerola
 Grup immobiliari, s.a.

Passeig de La Salle 9
 C. Sant Jordi 17
 E-43850 CAMBRILS
 Tel. 34(9)77 361567
 Fax. 34(9)77 360754



Aste gazte

Hobe diragaztaroko burugabekeriak, heldutasuneko lorpenak eta zahartzaroko arrakasta baino

DISRAELI

Didatec 90

• Azaroaren 21etik 25era: Hezkuntza eta Ikaslearen Azoka. Erakusketak, kultureta kirol ekintzak, ihardunaldi teknikoak, lan eta ikasketa orientabideei buruzko hitzaldiak, karrera eta lanbide berriak... Bilboko Nazioarteko Erakustazokan.

Lehiaketak

• "1990ko Santa Lutzi Argazki-Lehiaketa. Gaia: Euskadiko Feriak. Modalitateak: a) koloretako argazkia, b) zuri-beltza, c) diapositibak.

Sariak: a) 25.000 eta trofeoa, 18.000 eta 10.000 pta. b) 30.000 eta trofeoa, 21.000 eta 12.000 pta. c) 18.000 eta trofeoa, 12.000 eta 7.000 pta. Lanak aurkezteko epea: urtarrilaren 5era arte.

• XIII. Donostia Hiria Ipuin Lehiaketa. Euskaraz edo gaztelarazko ipuinak, gehienez, 12 orrialdekoak. Gai librea. Sariak (hizkuntza bakoitzeko): 300.000, 200.000 eta 100.000 pta. Lanak aurkezteko epea: abenduaren 8ra arte.

• III komiki eta Fanzin Lehiaketa. 16 eta 30 urte bitarteko zaletuei zuzendua. a) Komikiak: zuri-beltzean, neurriak: 18x24, teknika librea, 6 orrialde gehienez. fanzinak: 2 eta 4 orrialde bitartekoak, zuri-beltzean, teknika librea. Sariak (modalitate bakoitzeko): 75.000, 50.000 eta 25.000 pta. Lanak aurkezteko epea: urtarrilaren 19ra arte.

Bekak

* Letrakit 4 Ikerketa-be-

kak. Lan egitasmoak, bakarka zein iker-taldeka aurkeztu ahal izango dira. 4.000.000 pezeta-tako bi beka ikerlari esperientziadunei zuzenduko zaizkie eta 1.500.000 pezeta-tako beste bi ikertzaile berriei. Epea: azaroaren 30era arte.

• Dermofarmazia arloan ikerketarako beka-1991. Eskatzaileak: azkenengo lau urteetan ikasketak bukatu dituzten farmazialariak. Gaia: kosmetikoen eraginkortasuna. Dirulaguntza: 1.200.000 pta. Epea: abenduaren 1era arte.

• Estatu Batuetan ikasketa artistikoak sakontzeko bekak. Eskatzaileak: espezialitate artistikoa egiaztatzen duen titulua dutenak. Arloak: Zinea, Literaturgintza, Dantza, Eskultura, Argazkigintza, Musika, Pintura eta Antzerkia. Dirulaguntza: joan-etorriko bidaia txartela eta 1.900 dolar hilero. Epea: abenduaren 14era arte.

• Arte plastikoak, eskenikoak eta literaturgintza zabaltzeko dirulaguntzak. Eskatzaileak: Espainia eta Estatu Batuetako organismo eta

erakunde publikoak, artistak eta talde artistikoak. Arloak: Eskultura, Pintura, Musika, Antzerkia, Literaturgintza, Arkitektura, Zinea, Telebista, Bideoa, eta abar. Dirulaguntza: joan-etorriko bidaia txartela eta eguneko 145 dolar. Epea: 91-1-11.

• 1991-92 ikasturtean Suisan goi mailako ikasketak burutzeko (edozein arlotan), postgradu-bekak. Epea: 91-1-15.

Masterrak

* Giza-Sexualitatean Masterra. UNED. Lizentziatu, ATSn-Diplomatu eta antzeko ikasketak burutuak dituztenei zuzendua. Iraupena: 1991ko urtarriletik 1992ko ekainera arte. Inskripzioak: azaroaren 31era arte.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

**ANALISI KLINIKOAK,
LABORATEGIA**

I. Laborra Erdozain

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebisa, Asisa, Capisa)
GINEKOLOGI KONTSULTA

Zerkaosteta 17, etxabehea. Tfnoa: 79 20 18
ARRASATE

**MUSAKOLA
OSTATUA**

**Taberna
Jatetxea
Bazkarlak
Bodak
Banketeak
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

ETXEBIZITZAK

- Arrasaten, erdialdean lau urteko etxebizitza berogailuaz, salgai. Hiru logela, egongela, sukalde amueblatua, bi bainugela, ganbara. Garajea saltzea ere posiblea da. Tfnoa: 79 95 46
- Makatzenan 5. pisu bat salgai daukat, igogailu eta ganbara. Deitu 79 72 39 telefonora.
- Pisua salgai Erguin kalean, oso salneurri interesgarrian. 79 87 41 telefonoan nahi adina informazio.
- Maitena kalean pisua saltzen dut. Interesatuak dei egin 79 33 38 telefono zenbakira.
- Seme-alabarik gabeko bikoteak pisua alokatu nahi luke. Dei egin 79 88 20 telefonora
- Pisu konpartitu baten gela alokatuko nuke Arrasaten edo inguruetan. Tfnoa: 79 66 45. Jabi.
- Etxebizitza salgai, Loramendi, 06-14. A. amueblatua. Tfnoa: 79 98 03 Arratsaldez edo gaez.
- Pisua alokatzen da Gasteizko Adriano VI kalean. Interesatuak dei 79 31 77 tfnora.

LANA

- Neska gazteak etxeko lanak eta umeak zainduko litzuzke. Tfnoa: 79 15 56
- Latin, greko eta euskarazko klaseak ematen dira. Tfnoa: 79 50 88
- Neska euskalduna behar da Gasteizen ume txikia zaintzeko, urtariletik aurrera. Tfnoa: 945 - 22 62 22
- IEE bigarren mailako Fisika eta Matematika ikasketak ematen dira (Injinerutzako hirugarren mailako ikaslea). Tfnoa: 88 25 71 (Ostiral gaua eta igandea bitartean)

- OHoko klase partikularrak emateko prest. Euskaraz nahiz erdaraz. Dei 79 50 99 Tfnoa. Esther.
- Neska euskaldunak lana egingo luke arratsaldez. Bergara edo Arrasaten. Tfnoa: 76 52 39 gaueko 9etatik aurrera.
- Pertsona behar da San Viator Ikastolan ikasleen begirale eta aktibitateak egiteko, eguerdiko 1-3.30etara. Euskalduna eta aisialdian esperientziak. Epea azaroaren 2ra arte. Eskariak San Viator Ikastetxean Arrasate Pasealekua 10, Tfnoa: 79 04 11.
- REM I, II eta OHO.ko klaseak ematen ditut larunbat goizetan, bai euskaraz, bai erdaraz. Tfnoa.: 79 99 82. Iñaki
- Andra euskalduna etxeko lanak edo umeak zaintzeko prest. Tfnoa.: 79 07 73
- Neska behar da umeak zaintzeko. Tfnoa.: 79 38 55. 8etatik aurrera.
- OHoko klase partikularrak ematen dira bai euskaraz zein erdaraz. Tfnoa.: 79 26 19 Itziar.
- Emakumea umeak zaintzeko prest. Tfnoa.: 79 97 58.
- Emakumea afariak edo bazkariak zerbitzeko prest. Deitu 79 78 65 tfnora.

SALEROSKETAK

- Kitarra akustikoa "Jazmine bytakamine" salgai. Erabili gabe. 35.000 pta. Tfnoa: 79 23 97 Josu.
- Bideo kamara saltzen dut, Sony markakoa CCD-V 200 E PRO modeloa. Deitu 79 67 56 telefono zenbakira.
- Mountain-bike Bizikleta salgai. Peugeot. Tfnoa.: 76 27 78. Pello 10-11ak bitartean.
- «2.600» bideo joko kontsola salgai egoera onean. 5.000 pta. Tfnoa.: 78 17 88. 9etatik aurrera.

- Ileaipidegrako tresnak salgai daude. Egoera onean. Tfnoa.: 76 61 66
- «Montaña del Pirineo» txakurkumeak salgai. Pedigree gabe, baina jator jatorrak. Tfnoa.: 79 97 60
- Pisu baten ohea alokatzen da. Tfnoa.: 79 07 73
- Pedigree duen Colli txakurra behar da kumeak egiteko. Tfnoa.: 79 64 50. 9etatik aurrera.
- Pastor aleman txakur kumeak salgai. Tfnoa: 79 15 21. Jose Luis Berezbar.
- Portaeskia salgai (Opel Kadeterako) prezio onean. Tfnoa.: 79 45 39 Joxe Felix.
- Musika ekipoa salgai, prezio onean. Tfnoa.: 79 45 39 Joxe Felix.

DENETARIK

- Eralkitzeko lurra behar da Arrasate, Aramaio edo Aretxabaleta inguruan. Deitu 792586 tfnora
- Datorren Ikasturtean Madrilera Joan beharra daukat ikastera. Pisua konpartitu nahi nuke. Zuen etxean tokirik badaukazue deitu lehenbailehen. Oihane. Tfnoa: 79 90 24 Aretxabaleta.
- Astalehen goizean Donostiara joateko, bi neska autoa duen norbaitekin elkartuko lirateke. Dei 79 13 83 Arrasate.
- New York-etik gure Arrasateko lagunari musu handi bat. Sharryn, Geoff eta Kikin-en partez.
- Bi gazte larunbat goizetan buzoneo edo halakoren bat egiteko prest. Harremanetarako dei egin 79 55 35 tfnora. Arratsaldeko 7etatik aurrera. Mikel.
- Aspaldi honetan ez da fuegorik entzun Itzali egin al da? Non zaudete horren berritsu zaretenok? Eta hau Iparralde-aldera ere badoa. Goraintziak danoi eta anima zaitzete idazten. Jo Ta Fuego.



ESKERRONA

Arrasaten oraintsu hil den BELARMINA BERMUDEZ PEREZ-en familiak eskerronik beroena eman nahi dizue doluminak bidali edota haren aldeko hiletan parte hartu duzen guztioi.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Juan M^a Mendizabal
"Uritte"

Errasti Kristaldegikoa



- Kanada ala Kenia? Kanada. Beno, biak.
- Masilla ala silikona? Silikona, lan gutxiago ematen du.
- Mokorra apurtu edo gorra izan? Mokorra apurtu.
- Furgoneta ala auto normala? Auto normala.
- Kirola ala parranda? Parrandan hobeto.
- Landutako kristalak ala normalak? Normalak.
- Oporretara autobusez ala trenez? Autobusez, askatasun handiagozbidaiatzen da
- Barazkiak ala haragia? Biak gustatzen zaizkit.
- Baserria ala kalea? Baserria, baina kaleko bizimoduaz.
- Neskarekin egoteko, pinudia ala pagadia? Pagadian hobeto.
- Ardoa ala pattarra? Ardo ona.
- Egunez ala gauzez? Gauzez.
- Kristalak, txikiak ala handiak? Txikiak, dudarik ere ez. Metrotik gorakoak debekatuta egon beharko lirateke.
- Slip-ak ala kaltzoiak? Kaltzoiak.
- Rock-a ala trikitixa? Trikitixa, ohitura onak gorde egin behar dira eta.
- Bizitzeko, Euskadi ala atzerria? Duda barik, Euskadi.
- Kostaldea ala mendialdea? Mendialdea.
- Negua ala uda? Udaberria.
- Katua ala txakurra? Katua, bere kontura ibiltzen da eta.
- Familia ala lagunak? Familiakoek irakurtzen dutenean esango dute baina... lagunak.
- Kanping-a ala hotela? Beno, egoeraren arabera.
- Oporretara, bakarrik ala lagunduta? Lagunduta.
- Gorbataz ala buzoaz? Buzoa nahiago.

Zelebrequerixak

Bergaran Laspiur apellidoko asko dago eta jakina da batzuk «Laspiur» «s»kin eskribitzen dabela eta beste batzuk «Lazpiur» «z»kin.

Egun baten joan da gizon bat aiuntamentura papelen bat eittera eta bentanillako neskiak prentau dotsa:

— Zela daukazu izena?

— Paskaxio Laspiur.

— Zuek «Laspiur» «s»kin ala «z»kin eskribitzen dozue?

— Guk «l»kin.




Eskolan diktaua hasi eban andere-ñuak:

— Hasi eskribitzen. Titulua da «Oillua eta bere urrezko arrautzak».

Fraixkok prentau zotsan ixilixan Txoonpiori:

— Hi, Txoonpio, «arrautzak» zela eskribitzen dok, «h»kin ala «h» barik.

— Etxakixat. Nik baezpada be «po-truak» jarri juat.



Peru eta Marixa osteko bentanatik ollatokira begira zeren. Oillarra han zebilen bere zeregiñak eitten, lantzian oillo baten gafiñan. Eta Peruk zeroiazan kontuan:

— Bat emon, bi emon, hiru emon...

Marixak Peruri:

— Hori bai hori, eta ez hi...

— Bai, baiña beti diferentiek.

Juan Martin Elexpuru

comercial
 san juan

Garibal 12,
 Tfnoa: 79 13 05

hikein
 ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,
 Tfnoa: 79 13 84



KILI-KOLO

Ferrerias 21 Tfnoa. 797006
 ARRASATE



Portilloren eskolan

1934-35 ikasturtean

A

sko izan dira Mondragoen bizi izan diren maisu-maistrak. Batzuk, hala ere, eragin handiagoa izan nonbait, eta

errotuago gorde dira mondragoetarren oroimenetan. Hori da, adibidez, **Inazio Portillo** maisuaren kasua. 1918tik 1933ra bitartean egon zen irakasten Mondragoen, S. Frantzisko eliza ondoan, Sebero Altube plazari begira dagoen gelan, -AEDk Santo

Tomasetan Euskal Disko eta liburua-ren Azoka antolatzen duen tokian-. Bera aldamenen bizi zen, gaur egun komun publikoek duten atletik sartuta, bere emaztea eta seme-alabekin: Lucas, Amador, Socrates eta Julirekin hain zuzen.

Argazki hau atera zenean, bera ez zegoen ordurako Arrasaten. Eskolari, berriz, *Portilloren eskola* deitzen zioten.

Maisua on Francisco Terren zen. Ikasleak, goiko iladakoak, ezkerretik hasita, Rafael Barrena, Ramon Heriz,

Bizente Urzelai, Carlos Gimart, Jesus Bolinaga, Eugenio Ortueta (hilda), Ricardo Arriaran (hilda) eta Benito Azkoaga.

Erdiko iladan, Jose Manuel Uranga, Venustiano Uranga, Sebero Leiaristi, Angel Pinto (hilda), Jose Bilbao eta Luis Mendizabal (hilda).

Makurtuta, Juan Herrero (hilda), Pepe Castellanos, Laureano Letamendi, Faustino Barrena (hilda), Pedro Uranga eta Eugenio Bolinaga, pilotari ospetsua izandakoa gero, eta aspaldi hila.

**PUB
HAIZEA**



ENARA
OSAGARRIAK

Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32





MUSAKOLAKO ESKOLA PUBLIKOA

Gure marrazlaria 12 gauza garaike jarri ditu.
Leintzuk dira?





7. maila

Eztabaida gogorra



Oscar G.

8. maila



Ezate asmatur nor naitzen?

6. maila

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI

BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15



77 08 15

Poemak

Hariztian, arratseko une geldoak
 bazterrean, negar hotsak
 zeruan, elur malkoak
 aidean, esperantza galduak
 hariztetan, txori kabi hutsak
 eta urrunean..., baztertua, galdua
 banku zahar ahaztua
 txori kabi baino hutsago.

Mila begirada espazio zabalean zehar
 txori hegalariaik bailiran
 beren hego koloreztatuak aidean zabalduaz
 adar amestuaeren bila.
 Noragabeen doaz,
 iparralderuntz hegoalderuntz ustez,
 ekialdera mendebaldera beharrez,
 lastozko kabi
 aurki ezinik
 amodiozko begi

J. L. Ramos

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa:79 16 04



J. M. Heriz

**Konpromezurik gabeko
 aurrekontuak**

Otalora Lizenziatua. Arrasate

✓ **ESTABAIDA POLITIKOA EUSKADI IRRATIAN.** Eztabaida edo akaso hobeto esanda, azterketa eta tertulia politikoa. Aste honetan bi egun desberdinetan entzun izan dut aditu desberdinen arteko elkarrizketa egoera politikoari buruz: astelehenetako *Iturri onetik* eta larunbatean Joseba Agirretxearen saioan.

Denboraldi honetako *Iturri onetik* aldatu egin da. Odile Kruzetak utzi egin du programaren zuzendaritza. Orain Jesus Mari Gabirondo da koordinatzaile nagusia, eta lan ona egiten duela esan behar.

Gonbidatu zenbait ere berriak dira. Nerea Azurmendi, Jose Ramon Beloki eta Pello Zubiria joan egin dira eta haien ordez, Pako Garmendia, Juan Jose Gonzalez de Txabarri, Jose Felix Azurmendi eta Eugenio Ibarzabal etorri. Azken hauetako lehen hirurak beteranoak direla esan behar, programaren lehen denboraldian ibiliak bait ziren. Beste beteranoa, iaz ere hor zegoelako, Ramon Etxezarreta da.

Aldaketa hauekin programa interesgarriagoa bihurtu da, nire ustez behintzat. Pako Garmendia Nerea baino polemista hobea da, Jose Felixek askoz ere informazio gehiago du Pellok baino, etab.

Denboraldi berri honetan hiruzpalau bider entzun dut eta interesez.

Larunbatekoa ez dakit egun bateko euria izan zen ala astero emateko asmoa duten, baina gustora entzun nituen Agirretxearekin batera Martin Garitano, Jose Ramon Beloki eta Estepan Aldamiz-Etxebarriaren eritziak egoera politikoari buruz. Eguna eta orduak egokiak iruditzen zaizkit.

Urte batzuk direla ezinezkoa zirudiena, badoa gorputza hartzen. Euskaraz ere posible da komentaria politiko onak izatea.

✓ **BIZKAIA IRRATIA.** Hasieran Bilboko Herri Irratia zelakoan nengoen, haiek ere bizkaieraz egiten dute berba eta, baina ez, *Bizkaia Irratia* da, berria eta euskara hutsean ("Euskaraz Bizkaiko irratia bakarra" diote prentsa idatzian jarri duten publizitatean).

Bizkaieraz egiten dute berba, zenbait ikutu sabinianorekin, eta txistua, danbolina eta eskusoinua etengabe jotzen, baita goizeko 6.30etan bada ere.

Aramaion FM-ren 104,9an hartzen da. Bizkaian sartzen zaretenean, zuen dialaren 102,6an aurki dezakezue.

Joxe Aranzabal

Gusto baduzu

❑ KIROL EMANKIZUNAK

Asteburuan, telebistak, kirol ikuskizun ugari eskainiko dizkigu. Ziklokrossean, igandean Zarautzko Superprestigioa eskainiko digute zuzenean, goizeko 11.52etan

Kubatik, berriz, gauero Kirolez Kirol saioaren barruan, Munduko Pilota Txapelketaren berriak, 23.45ean.

❑ BABEL

Kirolariak, menturazaleak, kantariak, antzezleak eta abar luzea elkarrizketetan, eta barre egiteko aukera aparta begi izkutuarekin. Norbait begira dugula ohartzen ez garenean hartzen ditugun jarrerak ikusiaz dibertitzeko modua asmatu dute ETBkoek. Asteartean, gaueko 22.10ean.

❑ BIKOTE ZELEBREA

Etxeko zinerako antolatu ditugutena, Jack Lemon eta Walter Mattauren filmea da. Kazetari batek, andrearengandik apartatu ondoren hoteleko logela alokatu du bere buruaz beste egiteko asmoz, baina ez zaizkio gauzak uste bezala aterako, beste kazetari bat ere aurkituko du eta. Osteguna 21.20.



Bideoak

TUTUAN BARRENA ITZULI

Marcel Cabilari, bideokomiki honetako pertsonaia, nekatuta eta erropetan bideko hautsa erantsita, bere miseriaren zamapean, hirira doa, ilusio eta geroaren itxaropenak oro, beregan dauzkan hirira.

Ostadar irratia

OSTIRALA

3.30 eta 8.30. *Errota-zahar* (Ipuinak)

4 eta 8.30. *Batutakin* (Musika klasikoa)

ASTEAZKENA

4 eta 8. *Xiru-jiru-II* (Haur kantak)

OSTEGUNA

1 eta 8. *Irratia-gelan* (Gelako grabaketak)

OSTADAR Irratia. 102 FM



asteke

PROGRAMAZIOA

19 ASTELEHENA

- 18.30 Teletestua, era guztietako ohar eta abiturekin.
- 19.30 Bapirulauke ume saioa, S. Frantzisko Xabier Ikastolako umeekin.
- 20.00 Berriak, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.20 Mondrasport, Beñardo Kortabariak zuzendua.
- 20.40 Dokumentala, Eskoriatzako Irakasle Eskolako talde batek kontzientzia eragozpenaz egindako lana. Berriak (errepikaldia)

20 ASTEARTEA

- 11.00 Teletestua
- 12.00 Bapirulauke (bezperakoa)
- 12.30 Berriak (bezperakoa)
- 12.50 Mondrasport (bezperakoa)
- 13.15 Dokumentala (bezperakoa)
- 13.25 Bapirulauke

21 ASTEAZKENA

- 19.00 Teletestua
- 20.00 Berriak, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.20 Zenbat buru, hainbat aburu mahaingurua. Moderatzailea: J.M. Velez de Mendizabal. Gaia: sindikalgitza kooperatibetan.

Berriak

22 OSTEGUNA

- 11.00 Teletestua
- 12.00 Berriak (bezperakoa)
- 12.20 Zenbat buru, hainbat aburu (bezperakoa)

23 OSTIRALA

- 19.00 Teletestua
- 20.00 Berriak, Begoña Garak aurkeztua
- 20.20 Erretratoa. J.R. Elortzak zuzendua. Gorbidatua: Modesta Gallastegi, Aranguren baserrikoa.
- 20.50 Musikantoi. Mikel, Patxi, Asier eta Pepek egindako musika saioa.

Berriak

24 LARUNBATA

- 11.00 Teletestua
- 12.00 Berriak
- 12.20 Erretratoa (Bezperakoa)
- 12.50 Musikantoi (Bezperakoa)

Berriak




Bapirulauke zozketan berebiziko opariak egongo dira, astero-astero, galdera ondo erantzuten dutenenentzat. Elkar argitaletxeak hamar liburu eta komiki desberdin oparitu ditu astero; beste honenbeste Erein argitaletxeak, Ipurbeltz eta era

guztietako liburuak erregalatu. Arrasateko Udalaren Hezkuntza Sailak ere astero joko didaktikoak emango ditu, eta Elhuyar taldeak, bideoak astero eta aldizkarirako harpidetzak hilean behin. Oraingoan, dena den, ez dira erregalatuak hor amaitu, zeren zenbait kirol etxek ere interesa izango luke opariak

emateko. Ikusle zareten neska-mutiko guztiok aukera paregabea duzue hau. Bapirulauke ikusi, erantzuna bidali eta... Zorte on!!!


Esan dezagun, bide batez, Bapirulaukeren bigarren saioa San Frantzisko Xabier Ikastolatik emango dela. Badakizue, astelehenean arratsaldeko 7.30etan ATBn.. Eta errepikaldia, astearte eguerdian.



Joxe Errasti izan zen ATBn, Erretratoa egiten J.R. Elortzarekin. Joxek hamabi urtez jokatu zuen Mondran, 1938tik 50era arte, eta hori gutxi balitz, hamahiru urte eman zituen Mondrako futbolistak entrenatzen. Baina hor ez zen ariketa fisikoarekin Joxek izan duen harremana amaitu, izan ere, makina bat jenderi-jubilatuak barne irakatsi dizkio gimnasiaren taulak. 1974ean infartoak jo zuen eta 83an garunetako odoljarioak, baina zezenak bezalaxe dago Joxe.

SUKALDIAK

Zure etxebizitzarako apainketa-proiektuak egiten ditugu



Sukalde eta bainugelako altzaritan espezializatutako denda

Ignazio Zuloaga 4, Tfnoa: 79 05 07



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Familia eta bizilagunekin tirabirak ebitatu, Eguneroko harremanetan zuhur jokatu beharko duzu horretarako. Zeure barrua ezagutzeko behar beharrezkoa da une honetan. Lagaitzu alde batera trapuzaharrak. Ikerketaxoren bat egizu maitasunean.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Etxeke arazoan zergatiak bilatu nahian emango duzu denborarik gehiena. Erabakiak zure benetako nahiak zein diren jakinda gero hartu. Maitasunean ere horrelako zerbaiten beharrea zaude. Arazo laboralak bere onera etorriko dira.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Zeure barnea ezagutu ahal izateko bakardadea da benetan behar izango duzuna. Zure balore eta egoera ekonomikoak egoera onean jarraitzen dute, baina eguneroko harremanetan duda ugari sortuko zaizkizu besteekiko.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Azkarra eta ospezale den norbaitekin harreman estua izateko aukera suertatuko zaizu. Argi ibili finantzekin, ez zaizu komeni gero damutuko zaizun inbertsiorik egitea. Intuzioa izango da benetan erabili beharko duzuna.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Eguneroko harremanetan kritikoeji azaltzea ebitatu behar duzu Virgo. Amodio berriren bat suerta liteke eta jatorra izan beharko duzu zeure sentimenduekiko. Ziurtasunez jokatu lanean; ez ikustarazi kontrarik.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Zure gaitasuna elkarre eta taldeetan ikustarazteko aukera ugari izango duzu. Eraginkor egongo zara eta horrek bete egongo zaitu. Nahi pertsonalei dagokienez zeure nahiak ondo ezagutu barik tirabirak sortzea ebitatu. Garbi hitz egiten saiatu.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Gorabehera ugari izango dira lan arloan Gemini, barne-hausnarketaren bat egitea komenigarri izango zaizu zure benetako nahiak zein diren jakin ahal izateko. Inori aurre egitea eta haserraldiak ebitatu. Ahaz ezazu iragan negatiboa.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Finantza arloa puri purian daukazu Libra, jorjatu hortxe. Intuzioak diozunaren arabera jokatu. Arlo honetako izkutuko indar eta ahuleziek benetako balorazioa merezi dute. Ziurtasuna ondo finkatuta izango duzu.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra


Lan arloan itxura fisikoa izango da zaindu beharko duzuna Akuario. Zure helburuak aztertzea komenigarri izango da. Maitasunean noraezean ibiliko zara, arlo hori aztertzea ere komenigarri izango zaizu. Jarrizu soa ekintzetan eta ez hitzetan.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Egoera berri horrek bere baitan harrapatu zaitu eta zure ingurukoak ahaztu dituzu. Galduta sentitzen zara benetan. Egin zaitze zeure gizalagearen jabe eta arazo guztiak konpoduko dira. Ondo aztertu eskuartera datorkizun guztia.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Ondorioz, ospea eta aurrerabidea antzemango dituzu gehienbat. Amodioren bat suerta liteke, kontu izan botere nahi horrekin. Zeure benetako nahiak ezagutu ondoren helburu objektiboak ezarri.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Intelektualki puri purian egongo zara, beraz hezkuntza mailan eskainiko dizuten edozein aukera aprobetxatu, aurrerabide aproposa izango da eta. Erromantze horren alde ilunak ikusten hasia zara, oreka ezazu alde onekin.


BIDEO-EMANALDIA

Astakiloen abenturak eta kalenturak

- Tokia: **Monterron Kultur Etxea**
- Eguna: **azaroaren 10a**
- Ordua: **arratsaldeko 4.30etan**
- Prezioa: **50 pezeta**
- Sarrerak: **Monterronen**
- Antolatzailea: **Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea**

MARRAZKI BIZIDUNAK

ASTAKILOEN
ABENTURAK
ETA
KALENTURAK



irusoin SA



EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA ETA TURISMO SAILAREN ZATZ EGINKO TIRADA


ARGIA EGUNA 90

A Z A R O A K 2 5

10 urte



Biharko prentsa gaurtik



Karretearen errebelatuaren ardura guregan utzi dutenen artean egindako zozketan, **ELORZA** jaunari egokitu zaio **NIKON 501 AF** kamara **28-70 AF** zoomduna. Zozketa urriaren 31n egin zen, itsuen zozketako azken hiru zenbakiekin batera

• • •

LASO ARREGI
argazkia

ZURE ERREBELATUA ORDUBETEAN

Azaroan argazki makinen eskaintza daukagu. Prezio ezin hobean aukituko duzu zure gustoko kamara.

ARRASATEKO BETIKO ARGAZKILARIA